

The logo consists of the word "BBVA" in a bold, white, sans-serif font, followed by the word "Research" in a smaller, lighter weight of the same font. A small teal square is positioned to the right of the word "Research".

BBVA Research

Zertan den Nafarroa

2018

Espainia eta Portugalgo Unitatea

The logo features the text "Aukerak Sortuz" in a white, sans-serif font, centered within a light blue rectangular background.

Aukerak Sortuz

Aurkibidea

1. Editoriala	3
2. Nafarroako ekonomiaren perspektibak	5
Nafarroako egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2018ko hirugarren hiruhilekoa	25
3. Espainiako biztanleriaren lurralde-dinamika: 1950-2016	28
4. Taulak	35
5. Glosarioa	38

Itxiera data: **2018ko abenduak 5**

1. Editoriala

2017an, Nafarroako BPG % 2,8 hazi zen, 2016an behatutakoa baino 0,3 p.p. gutxiago. 2018an, hazkundeak erritmo berari euts diezaiokie (% 2,8), eta % 2,6ra iritsi arte apaldu daiteke 2019an. Espero den agertoki hori betetzen bada, sei urteko epea osatuko du lurralde honek urtez urte batez beste % 2,9 haziz, eta, beraz, 1980tik, batezbestekoa baino 0,6 p.p. gorago kokatuko da horrela. Horrez gain, **espero da langabezia-tasa % 8,1era murriztuko dela batez beste 2019an.**

Eskura ditugun azken datuen arabera, hazkundeak indartsu eutsi dio 2018an, nahiz eta halako apaltze bat ere sumatzen den: zehazki, **urtearen erdialdeko hiruhilekoetan, eskualdeko BPG % 0,6 inguru hazi dela esan daiteke (h/h, UEEZ¹)**, urte honen hasieran eta iazko urtearen bigarren erdian batez beste erregistratutakoaren azpitik kokatuz. Eskura ditugun adierazleek diote jardueraren aurrerabideak % 2,8ren inguruan euts diezaiokeela (u/u) urte amaiera aldera, ziurgabetasunarekin lotutako faktore batzuk agertu arren. Horren eragina ikus daiteke 2018ko hirugarren hiruhilekoan Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestari erantzun diotenen perspektibetan sumatutako moteltzean (ikusi 1. errekoadroa).

Urtean zehar Nafarroako ekonomiak izan duen bilakaera hori azaltzeko, esan daiteke kontsumo pribatuak eta turismoak dinamismoa galtzea, hein batean esportazioak berreskuratzeak konpentsatu dituela, bai eta inbertsioen portaera onak ere. Familiako gastuari eta zerbitzuen kanpoko salmentari eraso egin dioten faktore batzuek ez dute aldaketarik izango epe laburrean. Zehazki, kontsumoaren esparruko aurrerabidea apaltzea bat dator horren mesedekoa ez den testuinguru batekin: haren hazkundera sustatzen ari ziren aldeko faktore batzuek, hala nola petrolioaren prezioa jaisteak, beste joera bat hartu dute. Horrez gain, krisialdian geroratutako eskaria ahitzen ari dela nabarmendu da, eta ondasun iraunkorren ataleko gastuaren dinamismoari eragiten dio horrek. Bestalde, barne-eskaria moteltzeak –Espainian ere halaxe gertatu da– azalduko luke azken hilabeteetan turismoaren sektorearen hazkundera sumatutako ahitzea, bai eta atzerritarren bisiten hazkunde txikiagoak ere. Azaldutako hori, zati handi batean, turistek beste norabide bat hartzearekin lot daiteke, segurtasunaren pertzepzioa handitu egin baita zenbait tokitan, eta ez dirudi epe laburrera egoera aldatuko denik. Hilabeteotan hazkundera moteldu duten beste faktore batzuk leheneratu daitezke. Zehazki, espero da EDBn sumatutako susperraldiak Nafarroako esportazioei mesede egiten jarraituko duela, duela gutxi jasan duen motelaldia gainditu ondoren. Horrez gain, aldatu da jada 2017aren bigarren erdian euroak dolarren aurrean izandako apreziazioa, eta Nafarroako enpresen lehiakortasuna hobetu da. Itxuraz beste horrenbeste gertatu da erregaiaren prezio hazkunderarekin ere, azken aldiko apaltzeak ikusita. Kapital-ondasunen inportazioek eskualdean duten portaerari erreparatuta, aurrean daiteke hobekuntzak izango direla, produkzio-gaitasunean edota merkatu-kuotaren irabazietan, esportazioen sektorean bereziki. Azkenik, eraikuntzaren sektorean sumatzen den susperraldiaren hasiera lagungarri gerta daiteke aurrera begira enplegua sortzen jarraitzeko.

Dena den, hurrengo hilabeteetan susperraldiak jarraituko egingo duela aurreikusten da. Alde batetik, nazioarteko inguruneak aldeko izaten jarraituko du, eta horrek lagungarri izan behar du, inolaz ere, Nafarroako enpresek nazioartekotze-prozesuan aurrera egin dezaten. Gainera, diru-politikak hedakorra izaten jarraituko du, eta normalizazio-prozesu motela aurreikus daiteke; interes-tasei behetik eutsiko litzaieke horrela, aurreikuspenaren garaian, gutxienez. Barne-eskaria, oro har, sustatu egingo du baldintza finantzarioak arintzeak. Zehazki, higiezinaren sektoreari indartzen jarraitzeko modua emango lioke horrek, nahiz eta oraindik krisi aurreko mailetatik oso behera kokatu. Halaber, zerga-politika ere hedakorra izango da. Aurreko hori hautematen da, jada, autonomia-erkidegoan: gastua, batez ere inbertsioen atalekoa, nabarmen handitu da. Gainera, 2018an onartutako Estatuko Aurrekontu Orokorrek familien errentaren hazkundera bultzatuko dute urtearen bigarren erdian, bai pentsiodunen kasuan eta bai enplegatu publikoen kasuan.

1: UEEZ: urtarokotasun eta egutegi-eraginak zuzenduta.

Inguruneak baditu arriskuak, eta arrisku horiek gertatzeko aukera handitu egin da, duela zenbait hilabeteko egoerarekin alderatuta. Aurreikuspenetan, beheranzko joera eragin dezake horrek. Kanpoaldeari begira, petrolioaren prezioaren aldakortasunak, ziurgabetasuna eragiten du aldagai horrek hurrengo urtean finkatuko duen mailaz. Upeleko 75 dolarretik gorakoa balitz, berriki gertatu den legez, familien esku dagoen errenta murriztuko luke, eta eragina izanen luke Nafarroako enpresen lehiakortasunean ere. Horrez gain, Estatu Batuen, EBren eta Txinaren arteko aduana-tarifak handitzeak eragin mugatua izango luke, orain arte adierazitako esparruetan, eta, aurreikuspenen arabera, ez dute eragotziko merkataritza globalaren suspertzea, nahiz eta ziurgabetasuna dakarten, batik bat automobilgintzan, eskualdean funtsezkoa den sektore horretan, eta, neurri txikiagoan, ekipamendu-ondasunetan. Bestalde, Erresuma Batuen eta Europar Batasunaren arteko azken akordioaren onspenaren inguruko ziurgabetasunak jarraitu egiten du, lehenak bigarrena utziko duenez, eta berdin EBren eta Italiaren arteko tentsioak ere. Bestalde, epe laburrean, bat-batean eta modu esanguratsuan interes-tasak igotzeak ondorio garrantzitsuak izango lituzke familien, enpresen eta sektore publikoaren gastuetan. Oraingoan, Europako Banku Zentralak (EBZ) egindako iragarpenen arabera, ez da izango halako agertokirik, eta kontuan hartu behar da oso negatiboa litzatekeela hori zorpetuta dagoen ekonomia batentzat, Espainiakoarentzat, kasu, edota produkzioaren ehuneko handi bat finantziazioarekin saltzen duten sektoreentzat.

Barne-merkatuari dagokionez, ez dakigu zenbateraino motelduko den hazkundera, Espainian enplegua sortzeko horren garrantzitsua den sektore batean, turismoan. Lehen batean, aldaketa horren atzean leudekeen faktore batzuk behin-behinekoak lirateke, baina gorabidean diren herrialde batzuen aurrean lehiakortasuna galtzeak bisitarien fluxua beste helmuga batzuetara bideratzen jarraitzea ekar lezake. Horrez gain, politika ekonomiaren inguruko ziurgabetasunak handia izaten jarraitzen du. Ikuspegi horretatik, Espainian oro har nabaria da adostasuna falta dela, hazkunde handiagoa eta barneratzaileagoa eragingo luketen neurriak hartzeko bidean aurrera egiteko. Besteak beste, estatu mailan, zerga-politikaren izaera hedakorrak jarraituko duen zalantzan piztu du horrek. Ildo horretan, garrantzitsua da autonomia-erkidegoetako gobernuek neurri batean ziurgabetasun hori zokoratzen laguntzea, kontu publikoetako desorekak murrizten saiatuz. Horretarako, **autonomia-erkidegoko gastua estu zaindu beharko da aurrera begira ere. Nafarroaren kasuan erabakitako helburuak betetzeko marjina handiagoa bada ere,** erne ibili beharra dago.

Hala ere, **estuak dira Nafarroako ekonomiak epe ertainera dituen erronkak: krisi aurreko BPG maila (biztanleko eta balio absolutuetan) berreskuratu arren, enplegua oraindik orduan baino 2,3 p.p. beherago dago,** eta langabezia-tasa aurreko aldi hedakorrean lortutako minimoa baino 3,7 p.p. gorago. Areago: behin-behinekotasun tasak, gazteen arteko langabeziak eta epe luzekoak altuak izaten jarraitzen dute, eta, horrekin batera, betetzeke dauden postuen proportzioa ere handia da; susperraldia desorekatua izan daiteke, beraz, eta ez inklusiboa. Hortaz, langabezia-tasa eta enpleguaren behin-behinekotasuna azkarrago murrizten lagunduko duten politiketan sakontzen jarraitu behar da, eta lan-faktorearen produktibitatea handitu. Ezinbestekoa da laugarren industria-iraultzaren aukerak baliatzea, trantsizio digitala leundu, kostuak arindu eta etekinak sustatuko dituzten politikekin. Horretarako, funtsezkoak izango dira giza kapitala hobetzea, talentua erakartzea, teknologia berriak lehenbailehen geureganatzea eta enpresen batez besteko neurria handitzea.

Azkenik, 1950etik 2016ra Espainiako biztanleriak eta Nafarroakoak izan duten bilakaeraren azterketa aurkeztu da aldizkari honetan. **Foru Erkidegoan, zahartze-prozesu azkar bat hautematen da,** eta denboraldi horretan guztian 65 urtetik gorako biztanleriak gero eta pisu handiagoa duela ikusten da, **Espainian sumatzen denaren ildotik.**

2. Nafarroako ekonomiaren perspektibak

Nafarroako ekonomia % 2,8² hazi zen 2017an, aurreko urtean jardueraren gorakadan nabarmenduko % 3,1eko hazkundera baino 0,3 p.p. gutxiago. 2018. urteaz orain arte ezagutzen ditugun datuen arabera, badirudi aurten hazkunderari eutsi egingo zaiola, eta apur bat moteldu daiteke 2019an, % 2,6ra arte. 14.000 enplegu inguru sortzeko aukera ekarriko luke horrek 2018-2019 biurtekoan, eta, batez beste, % 8,1era jaitziko litzateke langabezia-tasa. Aurrerapen horren euskarri izango dira Europako eta munduko hazkundera, euroaren balio-galera, petrolioaren prezioak nahiko merke jarraitzea, eta inbertsioen aldeko portaera; oraindik hedakorra den diru-politika ere lagungarri da horretarako. Krisi aurreko BPG maila (absolutua eta biztanlekoa) 2017an gainditu ostean, 2018-2019. urteetako hazkunderak ez du aukerarik emango oraindik 2008ko enplegu mailara iristeko: aldi horren amaieran, 2,3 p.p. beherago kokatuko da.

2017an espero zena baino zertxobait gutxiago hazi ondoren, BPGren hazkunderak eutsi egin dio urtean zehar orain arte Nafarroan

BPGren 2017ko hazkunderaz INEk egindako lehen estimazioak Nafarroan jarduera % 2,8 hazi zela erakutsi zuen (aurreikuspenen azken berrikuspenaren ostean³ eta argitalpen honen azken alean⁴, iazko urteko amaierakoan, BBVAk espero zuena baino 0,2 p.p. gutxiago). Hala, **Espainiako batezbestekoa baino 0,2 p.p. gutxiago hazi zen BPG Nafarroan 2017an, aurreko urtean bezala.** Eskaintzaren esparruan, ekarpen positibo nagusiak zerbitzuei dagozkie: publikoek 0,7 p.p.-eko ekarpena egin zuten; merkataritzaren, ostalaritzaren eta garraioaren multzoan, 0,6 p.p.-eko ekarpena egin zuen bakoitzak, industriak bezala; eta gainerako zerbitzu pribatuei beste 0,7 p.p. dagozkie. Eraikuntza ere % 4,5 (u/u) hazi zen, eta 0,2 p.p.-eko ekarpena dagokio, beraz. Aldiz, lehen sektorean, halako geldialdi bat nabari da (ikus 2.1 grafikoa). Espainian ikusitakoarekiko diferentzialak⁵ murriztuz joan ziren, eta hamarren bat gutxiagoko ekarpena egokitu zitzaizen eraikuntzari, merkataritza, ostalaritza eta garraioaren multzoari edota industriari: Nafarroan, eskualdeko balio erantsi gordinaren % 30,1 adierazten du, eta hazkunde neurritsua izan zuen eskualdean, % 2,0koa (u/u). Aitzitik, zerbitzu publikoen eta gainerako zerbitzu pribatuen ekarpena hamarren bat handiagoa izan zen foru-erkidegoan.

2.1 grafikoa BPGren hazkundera 2017an, eta sektoreen ekarpenak (% u/u eta p.p.)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta, Espainiarako (iraila) eta eskualderako (martxoa) eskura dagoen azken informazioaren arabera

2: 2018ko martxoaren 23an, autonomia-erkidegoek 2017an izandako hazkunderari buruzko lehen estimazioa argitaratu zuen INEk. Emaitzak aztertu nahi badira, ikusi: <https://www.bbva.com/publicaciones/espana-crecimiento-del-pib-regional-1a-estimacion-de-la-contabilidad-regional-de-2017/>

3: Ikusi Observatorio Regional, 1H18: <https://www.bbva.com/wp-content/uploads/2018/02/Observatorio-Regional-1T18.pdf>

4: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-navarra-2017/>

5: Espainiari egiten zaion erreferentzia Urteko Kontabilitate Nazionalean oinarritu da, irailaren 6an argitaratutako berrikuspenaren ostean; aldiz, eskualdearen kasuan, Espainiako Eskualde Kontabilitatea, martxoan argitaratutakoa, hartu da oinarritzat.

2018ko jarduerari buruzko datuek eta espektatibek iragartzen dute Nafarroan BPGren hazkundeari eutsi egingo zaiola: MICA-BBVA⁶ ereduaren arabera, foru-erkidegoan jarduera ekonomikoak 2017ko bigarren seihilekoko hazkunde-erritmoari eutsi zion urtearen lehen hiruhilekoan, % 0,7an (h/h, UEEZ) kokatuz, eta moteldu egin da apur bat ordutik, % 0,6-0,7 inguruko hazkundeari eutsiz urtearen gainerako zatian. Hala, aurreko urteko hazkunde-erritmoa errepikatuko du (ikusi 2.2 grafikoa). Gauza bera iragartzen dute beste adierazle sektorial batzuek ere. Eskaintzari dagokionez, zerbitzuen sektoreko jarduera-indizea (ZSJI) bizkortu egin da urtearen hirugarren hiruhilekoan, lehen seihilekoan batez beste +% 1,1 (h/h, UEEZ) hazi ondoren; 2017ko bigarren seihilekoan baino apur bat gutxiago, hortaz (batez beste % 1,9 h/h). Bestalde, industria-jarduerak (IPI, industria-produkzioaren indizearen bidez neurtua) halako moteltze bat erakutsi zuen, behin-behinekoz, urtearen lehen seihilekoan (% 1,3ko murrizketa h/h, UEEZ), iazko urtean % 3,0 (u/u) hazi ondoren. Horrek bere eragina izan du 2018ko bigarren seihilekoaz eskuragarri ditugun datuetan, eta % 4,4ko hazkundera izan du (h/h) 2018ko hirugarren hiruhilekoan, kontsumo-ondasun iraunkorrek izan ezik gainerako azpisektoreek bultzatuta.

Eskariari dagokionez, areagotu egin dira kontsumoaren adierazleak, nahiz eta aurreko urteetakoekin alderatuta hazkunde txikiagoa iragartzen duten. Urte arteko ikuspegitik, datuak positiboak dira adierazle partzial guztietan, kontsumo-ondasunen eta manufakturen inportazioak salbuespentzat hartuta⁷ (hortik kanpo legoke automobil sektorea). Bestalde, ibilgailuen matrikulazioetan eragina izan dute, neurri batean, araudietako aldaketek, irailaren 1ean indarrean sartu zirenek⁸. Inbertsioari dagokionez, inbertsioa suspertzen ari dela erakusten dute bai irailera arte kapital-ondasunen inportazioetan izandako hobekuntzek eta bai bizitegiz besterako obren bisatuek ugaritzeak.

Zerga-politikak ere kontsumoa eta, areago, inbertsio publikoa sustatzen ditu. Kanpo-eskariaren kasuan, aurreko urtean automobilgintzaren sektorean eskaintzarekin lotutako faktoreen ondorioz behera egin ondoren, aurten berreskuratu egingo dira ondasunen esportazioak. Hala ere, badaude ziurgabetasun-faktore batzuk, sektore horri eta zenbait helmugari eragiten diotenak. Gainera, kontuan izan behar da testuinguru horretan Espainiako hazkundera txikiagoa dela, eta hura dela eskualdeko ondasun eta zerbitzuen bezero nagusia; horixe nabari da eskualdeko turismoan ere. 2018an Nafarroako ekonomiaren hazkundeari eutsi egingo zaiola diote perspektibek.


Egoera horretan, datu errealek erakusten dute 2018ko 4. hiruhilekoan hobera egingo dela, nahiz eta ziurgabetasunaren aurrean zalantzak areagotu egin diren, eta konfiantza, berriz, txikiagotu. Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestan, horixe adierazten du espektatibek behera egiteak, 2018ko iraileko joeretan: inkesta egin zaien hamar lagunetatik ia zortzik diote hobekuntza bat edo jarrera egonkorra sumatzen dutela hiruhilekoko jarduera ekonomikoan, baina % 13k soilik aurreikusi du hobekuntza bat urtearen azken hiruhilekorako. Gehienek (% 56) 2018ko laugarren hiruhilekoan jarduerak eutsi egingo diola uste izan arren, inkestari erantzun diotenen artetik ia herenak iritzi ezkorra du; espektatibetan, erantzunen saldo garbia negatiboa da, bederatzi hiruhilekotan lehen aldiz (ikusi 2.3 grafikoa).

6: Ikusi MICA-BBVA: A Factor Model of Economic and Financial Indicators for Short-term GDP Forecasting. Hemen: <https://www.bbvarresearch.com/en/publicaciones/mica-bbva-a-factor-model-of-economic-and-financial-indicators-for-short-term-gdp-forecasting/>

7: Automobilgintzaren sektorea aintzat hartu gabe.


8: https://cincodias.elpais.com/cincodias/2018/07/27/companias/1532690038_135719.html. Zehazkiago aztertzeko, ikusi 2018ko lehen seihilekoko kontsumo-egoera, hemen: https://www.bbvarresearch.com/wp-content/uploads/2018/07/Revista_Situacion_Consumo_1S18.pdf

2.2 grafikoa BPGren hazkundera MICA-BBVA ereduaren arabera (h/h, %, UEEZ)



(e) Estimazioa.
Iturria: BBVA Research

2.3 grafikoa Nafarroa: Jarduera eta perspektibak Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera (% muturreko erantzunen saldoa)



Iturria: BBVA

Kontsumo pribatuaren hazkundera apaldu egin da, aurreko hiru urteekin alderatuta

Nafarroako familien kontsumo-gastuak hazten jarraitu du 2018an (+% 1,9% u/u), aurreko hiru urteetan baino erritmo motelagoan, 0,5 p.p. beherago kokatuz, zehazki. Besteak beste, nahiko behetik jarraitu du petrolioaren prezioak⁹, historikoki baxuak diren interes-tasei eutsi zaie, eta familien errenta sustatu egin da, enpleguaren gorakadari esker; horrek guztiak kontsumo pribatuari lagundu dio aurreko urteetako, baina, oro har, Espainian baino neurri txikiagoan; horixe erakusten dute adierazle partzial nagusiek.


2018an, jada joan diren hiru hiruhilekoetan, familien kontsumoaren hazkundera ahuldu egin da Nafarroan, eskualdeko kontsumo-adierazle sintetikoaren arabera (ISCR-BBVA¹⁰), eta, batez beste, % 0,3ko hazkundera kokatu da (h/h, UEEZ), 2017aren bigarren erdian batez beste % 0,6 hazi ondoren (h/h). Horrek adierazten du estatuan behatutako hazkunderaren azpitik kokatu dela, 0,1 p.p. beheragotik aurreko urteetako, eta 0,2 p.p. beheragotik 2017ko bigarren sei hilabeteetan (ikusi 2.4 grafikoa).

Adierazle partzialen artean, 2018ko hirugarren hiruhilekoan, suspertu egin ziren Nafarroan ibilgailuen matrikulazioak, zerbitzuen sektoreko jarduera-indizea (ZSJE) eta kontsumo-ondasunen eta enpleguaren inportazioak, urtean lehen erdiarekin alderatuta; eta Espainian sumatutakoa baino goragotik kokatu ziren (ikusi 2.5 grafikoa). Hiruhileko horretan txikizkako salmentak gutxitu egin baziren ere, urriko datuen arabera aurreko urteetako bigarren erdian kontsumoan hobekuntza izango dela.

9: Nafarroako familiek garraioari zuzentzen dioten gastua Espainian batez beste zuzentzen diotena baino txikiagoa da; baina eskualdeko ekonomiaren produktio-egituraren eraginez, petrolioaren prezioarekiko duen sentsibilitatea batezbestekoari dagokiona baino handixeagoa da. Ikusi BBVA Research, Observatorio Regional 1H17, [hemen](#).


10: Kontsumo-adierazle sintetikoa eskualdeko gastu partzialen adierazle nagusietatik abiatuta osatzen da: txikizkako salmentak, ibilgailuen matrikulazioak, zerbitzuen sektorearen jarduera-indizea, kontsumo-ondasunen inportazioak, erregaiak eta barne-kontsumo nazionala. Adierazlea osatzeko metodologia osagai nagusien azterketan oinarritzen da. Informazio gehiago izateko, ikusi: R.1 ¿Afecta la evolución de la demanda doméstica al crecimiento de las exportaciones? In Situación España, 4 Trimestre 2015, BBVA Research. [hemen](#)

2.4 grafikoa Eskualdeko kontsumo-indize sintetikoa, ISCR (% h/h, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.5 grafikoa Kontsumo pribatuaren adierazle nagusien hazkunde eta aurreikuspenak (% h/h, UEEZ)




Lerro ez jarrai puntudunak estimazioa dela adierazten du, eskura dugun azken informazioaren arabera.
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Kontsumo-gastuek hazkunde neurritsua izanik, inbertsioa biziki sustatu da 2018an erkidegoan


Aurrekontuak gauzatzeari buruz 2018ko abuztura arte eskura ditugun datuen arabera, Nafarroako Foru Erkidegoa azken kontsumoari dagokion gastua estuago kontrolatzen ari da berriro; ildo horretatik, hazkunde-tasa neurritsuagoa dagokio orain, % 0,8koa (u/u), zehazki; autonomia-erkidegoetako batezbestekoaren oso azpitik dago hori (% 3,4 u/u). **Aldiz, inbertsioen esparruko gastuak % 25etik gorako hazkunde (u/u) erregistratu du, eta, beraz, iazko urtean hasitako joera hedakorrari heldu dio berriro** (ikusi 2.6 eta 2.7 grafikokoak).

2.6 grafikoa AAEE eta Nafarroako Foru Erkidegoa: Azken kontsumo nominala* (Urtero, t hilabetera arte metatua, %, u/u)



* Azken kontsumo nominaleko gastuari dagokion hurbilketa, kapital finkoaren kontsumoa kanpoan utzita. (a) aurrerapena
Iturria: BBVA Research, MINHAFPn oinarrituta

2.7 grafikoa AAEE eta Nafarroako Foru Erkidegoa: Kapital nominalaren eraketa gordina (% u/u)



(a) aurrerapena.
Iturria: BBVA Research, MINHAFPn oinarrituta

Obra publikoaren lizitazioa berriro hazi da aurten, 2017an nabarmen sendotu ondoren

2017an obra publiko berriaren lizitazioa gehien hazi zen autonomia-erkidegoen artean bigarrena izan zen Nafarroa, Kantabriak soilik hartu baitzion aurrea. Lizitatutako zenbatekoak ia laukoiztu egin zuen 2016koa. Foru-erkidegoan, obra publikoen iragarpena % 229,0 hazi zen 2016koarekiko, eta Espainiako batezbestekoaren gaineratik kokatu zen (+% 38,0). Obra moten arabera, ikus daiteke obra zibilari dagokiola hazkundearen zatirik handiena, % 281,3 hazi baitzen lizitazioa atal horretan, 2016koarekin alderatuta. Gainera, eraikuntza % 163,7 hazi zen urte arteko tasan, eta estatuko batezbestekoa ere (% 40,6) aise gainditu zuen.


Iaz, batez ere trenbide-sarea hobetzera eta eskualdeko errepideak eraiki eta berritzera zuzendutako kontu-sailak nabarmendu ziren; bi atal horiek ekitaldian lizitatutako zenbateko osoaren % 44,1 bildu zuten. Apur bat urrunago kokatu zen obra hidraulikoen lizitazioa. Lizitatutako obra nagusien artean, Zaragoza eta Iruñea artean Abiadura Handiko linean gauzatu zirenak nabarmendu ziren, Kantauri eta Mediterraneo arteko trenbide-korridorearen barnean, Alesbes, Azkoien eta Erriberri arteko zatietan.

Erakunde finantzatzaileei erreparatuta, 2017ko lizitazioaren hazkundearen zatirik handiena estatuari zor zaio: aurreko urtean lizitazioan bolumen txikia izan bazuen ere, 31,7 aldiz zenbateko handiagoa eskaini zion. 2016an, estatuak lizitazioan % 3,9ko pisua izan zuen, eta 2017an, berriz, % 37,5ekoa, azken 14 urteetako proportzio handiena. Bestalde, lurralde-erakundeek garatutako lizitazioa % 113,8 hazi zen.

2018ko lehen bederatzi hilabeteetako datuek obra publikoen ataleko inbertsioetan lehen postuan kokatu dute berriro Nafarroa. Hala, urtarriletik irailera bitartean, Nafarroako lizitazioa % 168,4 hazi zen urte artean, eta Espainian, batez beste, +% 38,2 hazi zen; autonomia-erkidego guztien artean, hazkunde handiena Nafarroari dagokio, beraz, 2.8. grafikoa ikus daitekeenez. Obra zibileko hazkundera nabarmendu da bederatzi hilabete horietan, eta % 319,9 egin zuen arrera, 2017an epe horretan izan zuenarekin alderatuta. Batezbestekoaren (% 50,0) oso gaineratik kokatu da, beraz. Bestalde, aldi horretan bertan, % 40,4 hazi zen eraikuntza, eta, estatuan, % 19,5eko hazkundera dagokio batez beste. Aurten, orain arteko zatian, eskualdeko errepide-sarearekin,


urbanizazio-lanekin eta, neurri txikiagoan, obra hidraulikoekin lotutako lizitazioen iragarkiak nabarmendu dira. Eragile finantzatzaileei dagokienez, lizitazioak gora egin zuen berriro aldi horretan, bai estatuari dagokionez eta bai lurralde-erakundeei dagokienez (2.9 grafikoa).

2.8 grafikoa Obra publikoa obra motaren arabera: 2018ko urtarriletik irailera bitarteko urte arteko hazkundeari egindako ekarpena (Puntu portzentualak)



Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

2.9 grafikoa Nafarroa: Lizitazioaren esparru aurrekontua erakunde finantzatzaileen arabera (Milioi €)



Iturria: BBVA Research, SEOPANen oinarrituta

Produkzioaren esparruko inbertsioak hobera egin du aurtan

Produkzioaren esparruko inbertsioak zantzu positiboak erakutsi ditu urtean orain arte Nafarroan, eremu batzuetan ziurgabetasuna areagotu arren. Perspektibak onak dira, dena den, eta baldintza finantzarioak arindu egin dira, interes-tasa baxuak lagun.


Alde batetik, ekipamendu-ondasunen inportazioak areagotu dira bereziki (% 17,3 u/u, eta, estatuan, aldiz, batez beste 1,2 p.p.-eko hazkundera izan), hiru urtean batez beste % 4,9 hazi ondoren (Espainian, % 11,1 batez beste). 2017an 2011tik lehen aldiz mila milioiko zenbatekoa gainditu ondoren, azken 12 hilabeteetako agregatua da, 1.140 M€ ingurukoa, 2008tik izan den handiena; eskualdeko BPGren % 5,8ren baliokidea, zehazki.

Horrez gain, bizitegiz besterako eraikuntzak¹¹ Espainian batez beste izan duena baino portaera hobea erakutsi du Nafarroan 2017an. Bisatutako azalera bikoiztu egin da urte arteko terminoetan, eta, Espainian, % 8,4ko hazkundera izan zuen batez beste. 2018ko lehen zortzi hilabeteetan, bizitegiz besterako eraikuntzak gora egin zuen berriro, baina aurreko urtean baino apalxeago: zehazki, 2018ko urtarriletik abuztura, bisatutako azalera % 17,5 hazi zen, 2017an garai berean izan zuenarekiko; estatuan, berriz, % 30,8 egin zuen gora. Obra motari erreparatuta, nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerako eraikinei zuzendutako azaleraren susperraldia nabarmendu da, eta zerbitzuetakoa ere bai (zehazteke). Aldiz, erabilerari industrialetako azaleran atzerakada nabarmena izan da (-% 74,3 urte artean), 2017an hazkunde garrantzitsua izan ondoren (% 311,1 u/u); eta garraio-zerbitzuei zuzendutako azaleran ere halaxe gertatu da.


11: Besteak beste, merkataritza eta biltegietara, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretara, industriari, bulegoetara, turismora eta aisialdira, garraio-zerbitzuetara eta abarretara zuzendutako eraikinak.

Informazio kualitatiboagoari erreparatuta, aldiz, emaitza positiboagoak ikusten dira 2018ko hirugarren hiruhilekoan, Nafarroako ekonomiak aurrez aurre ziurgabetasun handia erakutsi arren. Nahiz eta espektatibetan okerrera egin, oso bestelakoak dira Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzak, 2018ko hirugarren hiruhilekoko inbertsioari dagokionez: ikuspegi positiboa erakusten dute sektore guztietan (zortzigarren hiruhilekoz segidan); hiruhilekoen artean ere, hobera egin da, eta emaitzarik onera urte amaierakoari dagokio, lehen sektorean izan ezik gainerako guztietan. Eraikuntza berrien atalak, zerbitzuek eta industriak ere hobera egin dute, hiruhilekoen artean¹² (ikusi 2.11 grafikoa eta 1. errekoadroa).

2.10 grafikoa Bizitegiz besterako eraikuntzako bisatuen hazkundea eta ekipamendu-ondasunen inportazioa (% u/u)



2.11 grafikoa Nafarroa: Inbertsioen bilakaera sektorez sektore, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren arabera (Erantzunen saldoak, %)



Iturria: BBVA

* Bisatuetan, abuztu arteko informazioarekin, eta inportazioetan, irailera artekoekin.
Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan eta Datacomex-en oinarrituta

Salmenten hazkundea hasi da etxebizitzaren prezioan islatzen

Nafarroan, etxebizitzaren salmentak estatuan batez beste erakutsitakoa baino dinamismo handiagoa izan zuen 2017an. Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera, 6.040 etxebizitza saldu ziren, 2016an baino % 22,1 gehiago, urte arteko datuetan; Espainian erregistratutako hazkundea baino 5,8 p.p. gorago kokatu zen, beraz. Hiruhilekoetako dinamikari erreparatuta, ikusten da lehen hiru hilabeteak oso dinamikoak izan zirela, eta salmentak nabarmen areagotu ziren. Urteko erdiko hiruhilekoetan, atzera egin zen apur bat, eta, urte amaierako hiru hilabeteetan, berriz, hazkundea nabarmendu zen berriro. Osotara, transakzioak % 4,5 (UEEZ) hazi ziren hiruhileko tasan batez beste, eta horixe erakusten du 2.12 grafikoa.

2017an, eskariaren barneko segmentu guztiak hazi ziren Nafarroan. Etxeen erosle egoiliarrek pisu handiagoa izan zuten eskualdean batez beste: eskualdean saldutako etxebizitzaren % 84,7 eskualde horretako bertako egoiliarrek erosi zituzten, eta, oro har, ratio hori % 69,4koa da Espainian. Dena den, eskariaren barneko segmentu horrek izan zuen hazkunde txikiena 2017an, urte artean % 19,9 hazi baitzen (Espainiako batezbestekoa baino 3,5 p.p. gehiago). Beste probintzia batzuetako egoiliarrek erositako etxeei dagokionez, transakzioen % 7,8 dagozkie (Espainiako batezbestekoa baino 5,6 p.p. gutxiago), eta, urte artean, % 32,0ko hazkundea izan zuen atal horrek (batezbestekoa baino 12 p.p. handiagoa). Bestalde, erosle atzerritarrei eragiketen % 7,3 dagozkie (batez beste Espainian baino 9,5 p.p. gutxiago), eta hauxe da eskualdean gehien hazi den eskariaren barneko segmentua


12: Datuak ez dira zuzendu urtarokotasunaren arabera, lagina mugatua delako.

(% 42,2, eta Espainian, % 13,9 batez beste). Hala ere, eskariaren barneko bi talde horien hazkunde handiagoak Nafarroako merkatuan izan duen eragina mugatua da, pisu gutxi baitagokie eskualdeko merkatuan: Nafarroan, oro har, etxebizitzaren merkatuan zeresan handiagoa du erkidegoko egoiliarren portaerak batez beste Espainian baino.


Bestalde, aurtengo urtearen lehen seihilekoan, etxebizitzaren salmenta hazi egin zen Nafarroan, baina batez beste Espainian baino dinamismo txikiagoarekin. Urtarriletik ekainera bitartean, 3.268 etxebizitza saldu ziren, aurreko urtean garai berean baino % 7,2 gehiago, baina, batez beste, Espainian baino hazkunde txikiagoarekin, % 10,1 hazi baitzen Espainian. Hala, urtarokotasun eta egutegi-eraginak zuzenduta, goraldi garrantzitsua sumatu da 2018ko lehen hiruhilekoan, eta atzera egin du, berriz, 2018ko bigarrenean. Eskariaren barneko segmentuei dagokienez, 2018ko lehen seihilekoan erosketa gutxiago egin zituzten nafar egoiliarrek estatuko beste probintzietan: 2017ko bigarren seihilekoarekiko, % 4,3 jaitsi ziren eragiketa horiek, eta, Espainian, % 12,4ko hazkundera izan zuten batez beste. Bestalde, atzerritarren erosketak nahiz eskualdeko egoiliarrei dagozkienak batezbestekoa baino gutxiago hazi ziren. Lehenengo kasuan, % 3,8koa izan zen hazkundera u/u (vs estatuko batezbestekoa: % 5,4). Bigarren kasuan, % 8,9 hazi ziren urte artean (batezbestekoa baino 2,2 p.p. gutxiago).

Eskariaren portaera positiboak eragina izan zuen etxebizitzaren prezioaren hazkunderan, bai iazko urtean eta bai aurtengoan. Sustapen Ministerioak bildutako tasazio-balioen arabera, etxebizitzaren prezioa % 1,6 hazi zen Nafarroan urte artean, oro har Espainiako +% 2,4ko batezbestekoaren azpitik. Etxebizitzaren prezioa, 2018ko urtarriletik irailera bitartean, % 1,6 hazi zen berriro ere urte artean Nafarroan, estatuko batezbestekoaren azpitik orain ere (% 3,2 u/u). Sustapen Ministerioak emandako datuen arabera, etxebizitzaren prezioa metro koadroko 1.376,7 €-koa izan zen Nafarroan 2018ko hirugarren hiruhilekoan, eta 2016ko laugarren hiruhilekoan izan zuen minimoa baino % 5,6 gorago soilik kokatu zen. Dena den, 2008ko lehen hiruhilekoan lortutako maximoa baino askoz beherago dago prezio hori (-% 21,4). 25.000 biztanletik gorako bi udalerriek desberdin jokatu zuten 2017an: Iruñean, % 8,3 igo zen prezioa, eta Tuteran, berriz, % 1,8 egin zuen atzera. Aldiz, 2018ko lehen hiru hiruhilekoetan, antzeko portaera erakutsi zuen prezioak: bi kasuetan, % 4,5 inguruko hazkundera izan zuen. Hala ere, prezioak lehengoratzten hasi zirenetik, Iruñeari hazkunde handiagoa dagokio minimoetatik abiatuta Tuterari baino (+% 23,5 lehenari, eta +% 11,0 bigarrenari).

Etxebizitza berrien bisatuen sinadurak bilakaera okerragoa izan zuen 2017an Nafarroan batez beste Espainian baino, baina, 2018an, nabarmen egin du gora orain arte. Bi urtez hazi ondoren, behera egin zuen bisatuen sinadurak Nafarroan 2017an: ia 1.329 bisatu sinatu ziren, % 5,0 gutxiago, eta, Espainian, aldiz, batez beste % 26,2ko hazkundera izan zuten. 2017an onartutako baimenen mailak 2004tik 2006ra batez beste izan ziren sinaduren % 15,4 adierazten du soilik. Aurtengo urteko lehen zortzi hilabeteetan, eraikuntza-jarduerak susperraldi handia izan du: 2017ko azken hiruhilekoan izandako atzeraldiaren ostean, nabarmen hazi ziren 2018ko lehen hiruhilekoan; zuzendu egin ziren 2018ko 2.ean, eta, iraileko datua falta bada ere, lehengoratu egin da 2018ko hirugarren hiruhilekoan, urtarokotasun-tasak zuzenduta (2.13 grafikoa). Hiruhilekoen artean alde horiek badaude ere, 2017koen gainetik eutsi dio bisatuen mailak: urtarriletik abuztura, 1.429 bisatu sinatu ziren eskualdean, eta, urte artean, % 63,1eko hazkundera adierazten du horrek; batez beste estatuan (% 26,1) izan duenaren gainetik kokatu da horrela.

2.12 grafikoa Nafarroa: Etxebizitzen salmenta (UEEZ)


Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

2.13 grafikoa Nafarroa: Etxebizitza berrien eraikuntzako bisatuak (UEEZ)


(e) Estimazioa, abuztura arteko informazioarekin.

Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta

2.1 koadroa. Nafarroa eta Espainia: Higiezin merkatuko aldagaiak (% a/a)

	Etxebizitzen salmenta				Etxebizitzen prezioa		Etxebizitza berrien eraikuntzako bisatuak			
	2017		1S18		2017	1H18 - 3H18	2017		urt-ira 2018	
	Etxebizitzak	% u/u	Etxebizitzak	% u/u	% u/u batez beste	% u/u	% u/u	% u/u	% u/u	% u/u
Nafarroa	6.040	22,1	3.268	7,2	1,6	1,6	1.329	-5,0	1.429	63,1
Espainia	532.261	16,3	295.725	10,1	2,4	3,2	80.786	26,2	68.044	24,1

Iturria: BBVA Research, Sustapen Ministerioan oinarrituta


Esportazioek gora egin dute orain arte 2018an, automobilgintzaren sektoreak eta ondasun-ekipoek bultzatuta

Nafarroako ondasun errealeen esportazioek % 3,5 u/u egin zuten behera 2017an, automobilgintzaren sektoreko salmentak murriztu ondoren; Espainian, aldiz, % 8,2 handitu ziren. Murrizketa hori urteko hirugarren hiruhilekoan gertatu zen (ikus 2.14 grafikoa), Landabengo auto-fabrikaren eredu berri bat ekoizten hasi zirelako.

2018an, atzerriko eskualde-salmentek urte arteko aurrerapen indartsua erakusten dute, % 13,6 u/u-koa; hortik, 7 p.p. automobilgintzari dagozkie, iazko egokitzapen teknikoaren aldiarekiko konparazioak sustatuta, eta uda honetan, hein batean arrazoi teknikoengatik, sektorean moteltzea gertatu arren¹³. Edozein modutan ere, 2.15 grafikoa ikus daitekeenez, irailera arteko datuen arabera, gora egin dute esportazioek sektore guztietan. Zehazki, ekipo-ondasunen esportazioek egin dute gora: 2017an behera egin ondoren, % 12,6 u/u egin dute gora, eta horrek 3,5 p.p. osagarri eransten dizkio hazkunderari. Erdi-manufaktura esportazioak ere % 13,3 handitu dira, eta 1,8 p.p.-ko ekarpena egin dute.


13: <https://www.eitb.eus/es/noticias/economia/detalle/5778199/volkswagen-navarra-para-tres-dias-planta-landaben-pruebas-tecnicas/>

2.14 grafikoa Nafarroa eta Espainia: Esportazio errealak (1H13=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

2.15. grafikoa Ondasunen esportazioak eta sektoreen ekarpenak (% u/u, p.p.)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


Helmuga geografikoei dagokienez, 2017ko salmenten beherakada (% 4,3 termino nominaletan) eurogunea eta Europako gainerako herrialdeek eragin zuten, 2 p.p. baino gehixeago bakoitzak, merkatu horietara zuzendutako ondasunek % 3,2 eta % 12,8 murriztu baitziren. Lehenak Nafarroako esportazioen % 55 hartzen du, eta bosten bat bigarrenak. Asia –hurrengo helmugarik garrantzitsuenak– eta Ipar Amerika ere handitu ziren, % 4,0 eta % 8,8 u/u, hurrenez hurren (eskualdeko kanpo-salmenten % 7 eta % 5 hartzen dituzte). **2018ko orain artekoan, suspertzea gertatu da, oro har, helmuga guztietan**, eta eurogunea, Asia eta Europako gainerako lurraldeak % 18,6, % 11,5 eta % 8,7 handitu dira, hurrenez hurren.

Eskualdeko BPGren % 6,8 da hori. Hainbat arazo dituzten merkatuak dira (*brexita*, aduanako zergen iragarpenak eta krisi ekonomikoa), eta eragin zuzena dute Nafarroako esportazioetan eta, potentzialki, baita zeharkakoa ere, hirugarren herrialdeen bitartez. Iaz, Nafarroak inguru horietara zuzendutako esportazioek behera egin zuten; izan ere, Turkiara eta Erresuma Batua, hurrenez hurren, % 36,2 eta % 12,3 u/u gutxiago esportatu zuten; bestalde, merkatu iparramerikarrera zuzendutako salmentak % 9,0 handitu ziren. 2.16 grafikoa erakusten du Nafarroak hiru merkatu horietara zuzendutako esportazioak, sektoreen arabera; ekipo-ondasunak (AEBra zuzendu dira nagusiki), automobilgintza (Erresuma Batua eta Turkiara nagusiki) eta elikadura (merkatu britainiar garrantzitsua) nabarmentzen dira.

Urtearen orain artekoan, hiru merkatu horietara zuzendutako salmentak % 1,9 murriztu dira termino nominaletan, baina desberdintasun handiak egon dira batetik bestera: elikaduraren sektoreak % 6,4-ko igoera izan duen arren, merkatu britainiarrera zuzendutako salmentak % 30 murriztu dira irailera arteko metatuan, autoen eta ekipo-ondasunen salmentan izandako beherakadaren ondorioz (-% 69,4 eta -% 34,8, hurrenez hurren). Hala ere, sektore horiek Nafarroak Turkiara zuzendutako salmentak bultzatu dituzte, % 59,9ko igoerak izan baitira urteko metatuan (+% 77,3 ekipo-ondasunetan eta +% 66,4 autoetan). Bestalde, Estatu Batuek gero eta gehiago erosten diote Nafarroari (+% 13,4 u/u), nagusiki ekipo-ondasunak, automobilgintzaren sektoreak pisu txikiagoa baitu.


Bestalde, ondasun errealen inportazioek % 5,9 u/u egin zuten behera iaz, Espainian, 2016ko geldialdiaren ondoren, % 5,5 handitu baziren ere (ikusi 2.17 grafikoa). Aurtengo hirugarren hiruhilekora arteko datuen arabera, inportazioek gora egin dute (+% 9,5 u/u), bai eta esportazioek ere, automobilgintzaren sektorean behatutakoaren bide beretik. Aurten, erdi-manufakturak ere nabarmendu ziren, eta, lehenago esan dugunez, baita ekipo-ondasunak ere; horietako bakoitzak Nafarroako inportazioen bosten bat baino gehiago hartzen du. Beraz, ondasunen merkataritza-balantza 3.641 milioi eurokoa izan zen 2017an eskualdean, aurreko urtekoa baino % 6,5 txikiagoa; eskualdeko BPGren % 18,4ri dagokio.

2.16 grafikoa Nafarroa: Erresuma Batua, AEBra eta Turkiara zuzendutako esportazioak, sektorez sektore (2017, milioi € eta BPGren %)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta

2.17 grafikoa Nafarroa: Inportazio errealak (1H13=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en oinarrituta


Turismoaren hazkundeak murrizten jarraitu du 2018an, iaz errekorra hautsi arren eta ondoz ondoko sei urtetan gora egin arren

Iaz, Nafarroara iritsitako bidaiarien eta ostatu-gauen kopuruak 1,0 eta 1,9 milioitik gorakoak izan ziren, hurrenez hurren; beraz, % 2,4ko eta % 3,4ko hazkunde osoak izan dituzte adierazleok. Estatuko batezbestekoa baino 1,6 p.p. gutxiago bidaiaritan, eta 0,6 p.p. gehiago ostatu-gauetan. Hala, bada, eskualdeak markak hautsi zituen turismoaren arloan, sei urteko hedapena izan baitu jarraian. Dena den, hazkundea 2016an gertatutakoa baino txikiagoa da, (% 8 ingurukoa bidaiarietan nahiz ostatu-gauetan), eta 2018ko datuetan ere beherantz jarraitzen du, % 2ko inguruko igoerak erakusten baitituzte bi aldagaiek. Espainiarrei dagokien zatian (gehiengoa Nafarroan) nahiz atzerritarrei dagokien zatian hazkunde txikiagoa izan delako gertatu da hori.

Atzerritarrek 2018an izan duten bultzada ez da nahikoa izan hazkunde txikiagoa saihesteko: % 3 inguru handitu da urte artean, egoiliarren turismoa baino 2 p.p. gehiago. Eskualdeko turisten hiru laurden ia Espainian bizi denez, kopuru osoen bilakaera arlo horren oso menpe dago. 2017an, espainiarren turismoak ostatu-gauei dagokien atzerritarrenak baino hazkunde handiagoa izan zuen, baina ez zen gauza bera gertatu bidaiarien kopuruari dagokionez (ikusi 2.18 grafikoa).


Iaz, bisitarien eta egonaldiaren hazkundearekin batera, hotelen prezio-igoera gertatu zen eskualdean, % 2,0 u/u-koa termino errealetan; horren aurrean, estatuan % 4,2ko igoera gertatu zen, eta barnealdeko erkidego mugakideetan igoera neurritsuagoak gertatu ziren, edo behera ere egin zuten zenbaitzuek, Aragoik eta Errioxak, adibidez. Hala ere, urtarokotasun-eraginak zuzenduta, 2018ko urteari buruz eskura ditugun datuek adierazten dute Nafarroan turista gutxiago izan direla, prezio errealean geldialdia gertatu arren; horren aurrean, Euskadiko tarifek gora egin dute apur bat (ikusi 2.19 grafikoa).

2.18 grafikoa Nafarroa eta Espainia: Ostatu-gauak (1H13=100, UEEZ)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.19 grafikoa Hoteletako prezioen indizea (Errealak*, 2008=100)



* Estatuko KPIren arabera deflektatua. 2018ko datuak, irailera arte.
Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

Nafarroako lan-merkatuaren dinamismoa moteldu egin da urte honetako bigarren zatian

Nafarroan, **Gizarte Segurantzako afiliazioa % 2,9 hazi zen 2017an, aurreko urtean baino 0,3 p.p. gehiago, baina Espainiako multzo osoan baino 0,7 p.p. gutxiago. Gainera, hazkundea % 3,3ra arte (u/u) arte azkar daiteke aurten**, azarora arteko datuen arabera. Hazkundea indartsuagoa izan zen joan den urteko bigarren zatian eta aurtengo lehenengoan, zerbitzu publikoek, manufaktura-industriak eta jarduera profesionalak bultzatuta, nagusiki, eta, batez beste, % 9,9 h/h lortu da (UEEZ). Urte honetako bigarren erdian, eraikuntzaren esparruko hobekuntzak ez du lortu zerbitzu pribatuen eta manufakturen hazkunde txikiagoa konpentsatzea, eta, automobilgintzaren industriaren kasuan, ziurgabetasun protekzionistaren, legearen, WLTP protokoloaren¹⁴ eta abarren eraginpean egon daiteke. Eskualdeko lan-merkatuaren indarrak, oraindik ere Espainiakoa baino txikiagoa izaten jarraitzen duen arren (ikus 2.2 koadroa), batez beste, 7,6 mila afiliatu irabazi zituen eskualdeak iaz eta 9,0 mila gehiago izango lituzke aurtengo urtea ixtean.

Horrekin batera, eskualdeko lan-merkatuaren hobekuntza handixeagoa adierazten du iaz Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI); % 4,1eko (u/u) igoera izan zuen 2017an (11.200 enplegu), eta aurten gertatu den hobekuntza txikixeagoak konpentsatu du (% 1,1 u/u eta 2.800 enplegu lehenengo hiru hiruhilekoetan). Sektoreei dagokienez, BAIren arabera, guztiek egin dute hobera –industria eta eraikuntza nabarmendu dira–, baina soldatapeko langile publikoen kopuruak behera egin du.

14: <https://www.autobild.es/practicos/que-es-wltp-que-trae-nuevo-protocolo-emisiones-158272>

2.2 koadroa Gizarte Segurantzako afiliazioak hazkunderari egindako ekarpenak (h/h, %, UEEZ)*


	Nafarroa					Espainia				
	1S17	2S17	2017	1S18	2S18*	1S17	2S17	2017	1S18	2S18*
Nekazaritza	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0
Erauzketa ind. eta energia	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Manufaktura	0,2	0,3	0,9	0,3	0,1	0,1	0,1	0,4	0,1	0,1
Eraikuntza	0,0	0,0	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	0,4	0,1	0,1
Merk.garraioa eta konponk.	0,1	0,0	0,3	0,1	0,1	0,2	0,1	0,6	0,1	0,1
Ostalaritza	0,0	0,0	0,2	0,1	0,1	0,1	0,0	0,4	0,1	0,1
Komuni.finantza eta higiez.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,2	0,1	0,1
Jarduera profesionalak	0,1	0,2	0,6	0,1	0,0	0,2	0,1	0,6	0,1	0,1
Zerbitzu publikoak	0,2	0,3	0,7	0,2	0,1	0,2	0,2	0,8	0,2	0,2
Gizarte-zerb. eta Arte-jardue.	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0
Gainerakoak (etxea barne)	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Guztira	0,7	0,9	2,9	0,9	0,6	1,0	0,8	3,6	0,8	0,8

Seihilekoko datuak hiruhilekoen arteko batezbestekoak dira; ekitaldi osoak, urtekoak.* Azarora arteko datuetan oinarrituta. Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren oinarrituta

Enpleguaren hobekuntza ez da berdin gertatu Nafarroako eskualde guztietan. 2.20 grafikoko adierazten duenez, Iruñerriko afiliazioak, afiliazio osoaren bi heren inguru hartzen dituenak, krisi aurreko afiliazio maila berreskuratu zuen urteko lehen erdian. Erriberako eta Tuterako agregatuak, Lizarrerrikoak eta erdi-ekialdeko Nafarroakoak maila horretatik 3 p.p.-ra daude, eta Nafarroa ipar-mendebaldekoak eta Pirinioetakoak maila horretatik 11 p.p.-ra.


Iruñerriak izan zuen afiliazioaren suspertze handiena 2017an, eta ildo berean eutsi dio 2018ko hilabete hauetan ere (+% 3,2 u/u 2017an, eta +% 3,7 u/u aurten), baina erdi-ekialdeko Nafarroak (+% 4,9ko igoera 2018an, eskualdeko afiliazioaren % 4 baino gutxiagorekin) eta Tuterak (+% 3,9 u/u eta % 11 inguru) izan zituzten emaitza onenak. Edozein modutan ere, afiliazioak gora egingo du eskualde guztietan urtea ixten denerako: % 2 inguru Erriberaren, ipar-mendebaldearen eta Lizarrerriaren kasuan, baina ez da % 0,1-era iritsiko Pirinioen kasuan. Hala, bada, krisia hasi zenetik hamarkada bat igaro denean, Iruñerriaren pisua handitu egin da Nafarroako afiliazio osoari begira: % 62,5koa izan zen 2008an, eta % 64,1koa 2018an (+1,6 p.p.).

2.20 grafikoa Afiliazioa eskualdez eskualde (1H08=100, UEEZ)




Urrira arteko datuak, aurreikuspenekin osatuta. Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren oinarrituta

2.21 grafikoa Langabetuak, egoera horretan dauden denboraren arabera (Milakoak, urteko batezbestekoa)



Iturria: BBVA Research, INEn oinarrituta

2.22 grafikoa Gizarte Segurantzako afiliazioa, bailaraka (4H18*, %, u/u)



Urrira arteko datuekin kalkulatu da.

Iturria: BBVA Research, Gizarte Segurantzaren oinarrituta


Langabezia-tasa gehiago murriztu da Nafarroan: 2017an, 2,3 p.p. txikitu zen, eta % 10,2an kokatu zen; langabetuen kopurua % 16,6 murriztu zen, eta biztanleria aktiboak % 1,6 egin zuen gora. Estatuan, berriz, % 0,4 egin zuen behera. Nafarroako biztanleria aktiboaren hazkundera 5 mila pertsona ingurukoa izan zen iaz, eta 6 mila langabetu gutxiago daude, gutxi gorabehera. Aurten, orain arte, biztanleria aktiboak hazkundera-eritmoa murriztu du (+% 0,6 u/u), eta langabetuen kopurua egonkortu egin da, 32 mila pertsonatik behera kokatuz, batez beste.

Nafarroako langabeen heren batek ia bi urte baino gehiago daramatza egoera horretan, eta 4H16tik, langabetuen erdiak baino gehiagok urtebetetik behera darama egoera horretan (ikusi 2.21 grafikoa). Enpleguaren hazkundera eta lan-merkatuaren ikuspegi hobeez, jarduera-tasan gertatutako aldaketekin batera, aldaketak eragin dituzte langabeziaren iraupenaren barne-osaketan; aurtengo lehen hiru hiruhilekoetako datuetan oinarrituta, langabeen % 47,6k urtebete baino gehiago darama egoera horretan, Espainiako batezbestekoa baino 2 p.p. beherago kokatuz. Aldi berean, aldi baterako lanen tasak gora egin du apur bat Nafarroan, eta % 24 ingurukoa da, Espainiako batezbestekoa baino 2 p.p. txikiagoa.


Diru-sarrerak motelago suspertu diren arren, Nafarroak ez luke arazorik izan beharko 2018ko egonkortasun-helburua betetzeko

2018ko irailera arteko aurrekontu-gauzatzeak berretsi du autonomia-erkidegoko diru-sarreraren suspertzea urte hasieran aurreikusitakoa baino txikiagoa izan dela, iaztik indarrean den zerga-egutegian gertatutako aldaketak eraginda, nagusiki. Bestalde, 2018ko abuztura arte, gastu autonomikoa suspertu egin da berriro, % 5,4ko (u/u) hazkunde-tasekin. Nafarroako Gobernuak kontsumo-gastuan izandako moteltzea (zehazki, soldatapekoen ordainketan) ez da aski izan gizarte-laguntzetan edo inbertsio-gastuan izandako igoera konpentsatzeko. Horren ondorioz, Nafarroako Foru Erkidegoak eskualdeko BPGren % 0,3ko defizitarekin itxi du 2018ko iraila, 2017ko irailera arte erregistratutako % 0,1eko superabitaren aurrean (ikusi 2.23 grafikoa).

2.23 grafikoa Nafarroako Foru Erkidegoa: Finantzaketarako gaitasuna/beharra (Urte bakoitzeko t hilabetera arte metatutakoa, eskualdeko BPGren %)



2.24 grafikoa Pertsonako BPG 2017an, eta aurreikuspen-zerumugan izandako bilakaera (€ konstanteak)



Iturria BBVA Research, MINHAFFPen oinarrituta

Iturria BBVA Research, INEn oinarrituta


BPGren hazkundeak % 2,8an eutsiko dio aurten Nafarroan, eta % 2,6ra jaitsiko da 2019an, 14 mila enplegu sortuz

Nafarroako ekonomiak 2018an % 2,8ko hazkundera izatea espero da (2017koaren parekoa), eta, aurreikuspenen arabera, 2019an hazkunde hori apur bat txikiagoa izango da da, % 2,6koa. Biurtekoan 14 mila enplegu sortzeko aukera emango luke horrek, eta langabezia-tasa 2.1 p.p. txikituko litzateke 2019an, % 8,1era jaitsiz. Aurreikuspenak beteko balira, biztanleko BPG errearen urteko batez besteko aurrerapena Nafarroan (+% 1,8) Espainiako batezbestekoa baino apur bat beherago geldituko litzateke 2018-2019 biurtekoan (ikusi 2.24 grafikoa). Hein batean, foru-erkidegoko biztanleriak gora egitea espero delako gertatuko da hori, 2014tik hartutako joerari eutsiz: biurtekoari begira, biztanleriaren % 1,6ko hazkundera espero da; Espainian, berriz, batez beste, % 0,9ko igoera espero da. Horrela, 2017an biztanleko BPGren eta BPG absolutuaren krisi aurreko mailak gainditu ondoren, aurreikuspenaren zerumugaren bukaeran ez dira artean langabezia-tasa eta enplegu maila berreskuratuko: 2008ko mailekin alderatuta, hurrenez hurren, 1,3 p.p. gaintetik eta 2,3 p.p. azpitik kokatuko dira (ikusi 2.30 grafikoa, atal honen bukaeran).

Aurrera begira, hainbat faktorek baldintzatuko dute eskualdearen jokabidea. Aurreikuspenen arabera, **egoerak bizkortzen jarraituko du mundu mailan, eta, diru-politikaren joera hedakorrarekin batera, esportazioen hazkundera bultzatuko du horrek.** Aurretik aurreikusitakoa baino balio-galera handixeagoa izan duenez euroak,


eurogunetik kanpoko esportazioak sustatzea gerta daiteke. Edozein modutan, automobilgintzaren sektorearen bilakaera ere garrantzitsua izango da, ziurgabetasunak ziurgabetasun. Bestalde, PFEZaren beherapenaren ondoriozko zerga-bultzadak eta pentsioen eta soldata publikoen igoerak kontsumoaren hazkunderari euts diezaiokete; azkeneko bi neurri horiek Nafarroan izan dezaketen eragin erantsia Espainiako batezbestekoaren antzekoa izango litzateke, eskuragarri duten errentaren igoera erantsia 0,6 p.p. ingurukoa bailitzateke. (ikusi 2.25 grafikoa). Gainera, aurreikusitako turismo nazionalaren moteltzea arinduko du horrek, Espainian kontsumo pribatuaren dinamismo txikiagoa gertatzen ari den testuinguruan, pilotutako eskaria eta aldeko haizea desagertu izanaren ondorioz, eta kontuan izan behar da turismo mota horrek duela indar handien autonomia honetan (10 bidaiaritatik 7 baino gehiago).

2.25 grafikoa Eskualdeko errenta eskuragarriaren igoera, soldata publikoen eta pentsioen gorakadaren ondorioz (p.p.)



Iturria BBVA Research eta INE

2.26 grafikoa Petrolioaren prezioan espero den gorakadak BPGn eta esportazioetan duen eragina (BPGren p.p.)




Iturria BBVA Research, Datacomex-en eta INEn oinarrituta

Muga-zergen gerra, *brexita* eta automobilgintzaren inguruko ziurgabetasuna, Nafarroako ekonomiarako arrisku nagusiak

Nafarroak 2018-2019 biurtekoan hazten jarraituko duela aurreikusten den arren, **barne- nahiz kanpo-arriskuak ez dira desagertu**; kasuren batean, gainera, arrisku horiek handitu egin dira. Alde batetik, eremu globaletik iritsitako arriskuak handitu egin dira. Petrolioaren prezioari dagokionez, adibidez, duela hiru hilabete aurreikusitakoaren gainera igo da, eskaintzarekin lotutako faktoreen eta azken aldiko gorabeheren ondorioz. Prezioaren igoera horrek eskualdeko ekonomien gain izango dituen ondorioak ekoizpenaren *mix* energetikoaren eta horren irekiera mailaren menpe daude, hein handian. Nafarroaren kasuan, jardueraren gaineko eragina 0,7 p.p.-koa baino gehiagokoa izatea espero da, Espainiako batezbestekoaren gainera (ikusi 2.26 grafikoa).


Bestetik, AEBko gobernuak Europatik iritsitako produktuei ezarritako **muga-zergen igoerak esportazioen gain izango du eragina**. Eragin hori garrantzitsua izan daiteke, automobilgintzaren sektoreari eragiten dion heinean, EBra nahiz hortik kanpo zuzendutako esportazioek Nafarroan duten pisu erlatibo handiarengatik. Gainera, merkataritzari gero eta hesi gehiago jartzeko arriskuak hor jarraitzen du, eta eskualdeko ekonomien jarduerari kanpo-eskariak egiten dion ekarpena murriz dezake horrek, bai zuzenean bai zeharka; hala gertatuz gero, eragin handiagoa izango luke horrek jarduera ekonomikoaren gain.

2.27 grafikoa Merkataritza-gerraren eragina jasan dezaketen produktuen esportazioak (2017, BPGren gaineko %)



Iturria: BBVA Research, Datacomex-en eta INEn oinarrituta

2.28 grafikoa Nafarroako Foru Erkidegoa: Lehen mailako gastuaren aldaketa (BPGren p.p)



(a) Aurreikuspena. (A) Aurrerapena.
 (*) Egonkortasun-helburua lortzeko egin beharreko aldaketa (-% 0,4).
 Iturria BBVA Research, MINHAFPen oinarrituta

Hirugarrenik, **ziurgabetasun handiagoko egoera** espero da, **Italiako politika ekonomikoan sortutako tentsioak erakusten duenez, eta EDBk 2019an izango duen jarduerari ere eragingo dio horrek**. Horrez gain, *bexitari* lotutako ziurgabetasunak ere hor daude; Espainiako gainerako eskualdeek baino lotura handixeagoa du Nafarroak Erresuma Batuekiko¹⁵. Oraingoz, automobilgintzari elikadurari baino gehiago eragiten dio, eta azken hori da Nafarroako sektore nagusia merkatu britainiarrean, frutak eta barazkiak esportatzen baititu, ardoaz gain.

Alde horretatik, **garrantzi berezia du eskualdean automobilgintzaren sektorearekin lotutako ziurgabetasunak**: igorpenen tratamenduak, ibilgailuen eskariaren gainean izan dezaketen eraginak eta motorren hornikuntza-arazoak, hainbat lantegitan geldialdiak eragin dituztenak,¹⁶ baita Nafarroan ere, negatiboki eragin diezaioke sektoreari; esportazioen % 40 hartzen du sektore honek, eta badirudi ibilgailu elektrikorantz zuzendutako mailakako trantsizioa garatzen ari dela.

Barne-merkatuari dagokionez, **barne-eskariaren hazkundera aurreko urteetako baino txikiagoa izan daiteke**. Aurreko adierazpena azaltzeko faktoreen artean, lehenik, krisialdian “pilatutako eskariari” lotutako bultzadaren ahitzea nabarmendu behar da, bai eta jarduera bultzatzen zuen aldeko haizearen trakzio-galera ere (interes-tasak ez dira gehiago jaitsi, eta petrolioaren prezioa gorantz ari da); horrek guztiak etxeetako kontsumoa moteltzea ekarri du. Aitzitik, zerga-bultzadak eta barne-eskariaren gain izan dezakeen eraginak estatuko turismoaren euskarri moduan joka dezakete, eta horrek eskualdeko turismo-sektorea babestu du (orain artean, behintzat).

Agertoki hori izanik, diru-sarrerak urte hasieran aurreikusitakoa baino okerxeago jokatzen ari dira, baina gastuaren doitzera hasierako estimazioen bidetik doa. Modu horretan, Nafarroak lehen mailako gastua handitzea eta 2018. urtearen amaieran aurreko urtean baino saldo okerragoa izatea espero da, baina, hala ere, erruz beteko du egonkortasun-helburua (ikusi 2.28 grafikoa).


Gainera, Kataluniako tentsio politikoa arindu egin dela dirudien arren, erkidego horretako jardueraren zenbait adierazleren gaineko ondorioek hor jarraitzen dute, eta Nafarroako ekonomiari eragin diezaioke, hein batean zein bestean. Batez ere merkataritza-fluxuen bitartez Kataluniako ekonomiarekiko duen harremanaren ondorio izango litzateke hori. Aurrekoarekin lotuta, 2017. urtearen bukaeraren eta 2018ko hasieraren artean Katalunian ekipondasunen arloko inbertsioan gertatutako erorikoak 3H17tik 2H18ra artean BPGren hazkunde txikiagoa eragin

15: Ikusi Zertan den Nafarroa 2017 aldizkari 2.27 grafikoa, hemen: <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-navarra-2017>
 16: <http://m.noticiasdenavarra.com/2018/10/06/economia/vw-navarra-plantia-cerrar-5-dias-mas-por-falta-de-motores-y-admite-ya-bajada-de-pedidos>

zuela uste da, *shock* hori izan ez balu baino lau hamarren txikiagoa, hain zuzen. Beste eskualde batzuekin alderatuta, Nafarroak ez luke murrizketa horren eraginik handiena jasango, baina BPGren bi eta hiru hamarren arteko eragina izango luke (ikusi 2.29 grafikoa).


Azkenik, **espainiarren sektore turistikoa moteltze-sintomak adierazten ari da**. Hala ere, arazo horrek Mediterraneo aldeko eta uharteetako turismoari eragiten dio nagusiki; gainera, eskualde honek saturazio turistikoa txikiagoa du, eta prezioaren eta lehiakortasunaren aldetik irabazi handiagoa du, krisiaren ondoren hotelen prezioak doitu ondoren (ikusi 2.30 grafikoa). Horren guztiaren ondorioz, Nafarroako eskariak beste autonomia-erkidego batzuetakoak baino eragin txikiagoa jasango du.

2.29 grafikoa Ekipo-ondasunen inbertsioaren ererikoak Kataluniako BPGn sortutako 4 hamarreneko murrizketak 2018an eskualdeko BPGn izandako eragina (BPGren p.p.)



Iturria BBVA Research

2.30 grafikoa Hoteletan izandako bidaiarien kopuruaren hazkundearen aldaketa eta okupazio maila goi-denboraldian, autonomia-erkidegoen arabera (p.p.)




Goi-denboraldizat jotzen da ohean okupazio-ratioa urtean izandako gehienekoaren % 80 edo gehiago denean.
Iturria BBVA Research

Aurreikuspenen arabera, 14.000 mila lanpostu inguru sortuko dira

Agertokia betetzen bada, 2018-2019 urteetan Nafarroan 14.000 lanpostu berri inguru sortuko lirateke.


Lehenago adierazi denez, okupazioan hobekuntza gertatu arren, ez da oraindik berreskuratu krisi aurreko maila enpleguan, biurtekoaren amaieran, 2008ko maila baino 2,3 p.p. beherago kokatuko baita (ikusi 2.31 grafikoa). Bestalde, langabezia-tasa murriztu egingo dela aurreikusten da, eta 2019an % 8,1ekoa izatea espero da, 1980az geroztiko batezbesteko historikoaren azpitik baina 1H07ko minimoa baino 3,7 p.p. gorago (ikusi 2.31 eta 2.32 grafikoa). Langabezia maila frikzionalera edo krisi aurreko minimora hurbiltzen den heinean, soldatak igotzeko presioak ager daitezke.

2.31 grafikoa BPG, okupazioa, langabezia-tasa, biztanleria eta biztanleko BPG. 2017ko maila eta aldaketa 2018-2019an (Krisi aurreko maila, 2008 =100)



Iturria BBVA Research, INEn oinarrituta


2.32 grafikoa Egungo langabezia-tasa (Biztanleria aktiboaren %) eta aurreikuspenak, maximo eta minimo historikoen aurrean



Iturria BBVA Research, INEn oinarrituta (BAI)

Nafarroan, bete beharreko lanpostu hutsen kopurua biztanleria aktiboarekiko Espainiako eskualdeen arteko handiena da (ikusi 2.33 grafikoa). Horren eta hazkunde-inguruaren, batez bestekoaren azpitik dagoen langabezia-tasaren eta biztanleriaren zahartzearen (3. kapituluaz aztertu da) ondorioz, giza kapitalaren murrizketak sor daitezke Nafarroan; zehazki, langile espezializatuagoak bilatzen dituzten sektoreetan, hala nola industrian, zerbitzu aurreratuen atalean edo informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan. Gaur egun langabezian dauden pertsona askok ez badute enplegua sortzen duten enpresek eskatzen duten prestakuntzarik, lanpostu horien ordainsariekin gora egin dezakete arrazoi horren ondorioz, eta lanpostu bat dutenen eta ez dutenen arteko desoreka areagotu egingo litzateke.

2.33 grafikoa Langabezia eta lanpostu hutsak (% 2H18, 4 hiruhilekotako batezbesteko mugikorra)



Iturria BBVA Research, INEn oinarrituta

Nafarroako egoera ekonomikoaren azterketa, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren bidez. 2018ko hirugarren hiruhilekoa¹⁷

2018ko hirugarren hiruhilekoari dagokion Nafarroako Jarduera Ekonomikoari buruzko Inkestaren (EAE-BBVA) emaitzak bat datoz hazten jarraitzen duen eskualdeko ekonomiarekin, baina ziurgabetasun handiagoa ere izango du aurrez aurre. Jarduerari buruzko ikuspegi orokorrean, saldo positiboak erakusten dituzte emaitzek, baina negatiboak dira espektatibei dagokienez, aurreko hiruhilekoan gertatu zenaren kontrara. Halaxe gertatu da, nahiz eta inkestan industriaren eta eraikuntzaren sektoreetako adierazleak indartu egin diren, baita urte arteko datuei erreparatuta ere. Eta adierazle partzial ia guztietan saldo nabarmen baikorrekin.

Une honetako hiruhilekoko jarduerari buruzko ikuspegian, inkestari erantzun dioten pertsonen ia % 40k sumatu zuen jarduera areagotu egin zela 2018ko hirugarren hiruhilekoan, eta jarduera ekonomikoak egonkor eusten ziola adierazi zuten beste horrenbestek, iraileko azken egunetan eta urriko lehen egunetan bildutako erantzunetan. Hala, erantzunen saldo garbia positiboa da eskualdean (+% 13koa), urte honetako lehen hiruhilekoan eta iazko urte osoan bezala (ikusitako R.1.1 grafikoa). Inkestari erantzun diotenenetatik laurdenari iruditu zaio jarduera apaldu egin dela beren bulegoaren inguruan, aurreko hiruhilekoan baino 11 p.p. beherago kokatuz; baina duela urtebete pertzepzio negatibo hori zutenekin alderatuta, 21. p.p. gorago kokatu da.

Hurrengo hiruhilekorako espektatibei buruzko emaitzek halako beheranzko joera bat erakusten dute, eta lehen saldo negatiboa dagokie bederatzi hiruhilekotan (-19 p.p., 2016ko bigarren hiruhilekoan izandako -16.p.p.-etatik abiatuta +33 p.p.-eko saldo garbi positiboa izan ondoren). Ziurgabetasuna eta ekonomiarako arriskuak areagotzeari (automobilgintza barne) egotz diezaiokegu balioespen hori; baina orain arte jarduerari buruzko datu gehienetan edota inkesta honetako adierazle partzialetan ikusitakoa baino ezkorragoa da. BBVA Research-ek egindako aurreikuspenen arabera, Nafarroak eutsi egingo dio hazkunderari, aurreko urtekoarekin alderatuta; duela urtebete aurreikusitakoa baino apur bat txikiagoa izan zen hura, dena den, eta baita 2016an aurreikusitakoa baino motelxeagoa ere.


Adierazle partzialen artean, industriari eta eraikuntzari buruzkoek erakusten dute hobera egin dutela hiruhilekoan, baita urte arteko datuei erreparatuta ere: bi sektoreetan, erantzunen saldo garbiak positiboagoak dira, bai inbertsioaren atalean eta bai enpleguan, eta baita industria-produkzioan ere. Urte arteko datuetan, azken bi seinale horiek duela urtebeteko saldo positiboen berdinak erakutsi dituzte. Zerbitzuen esparruko enpleguak soilik egin du behera aurreko hiruhilekoarekiko, eta, dena den, saldo garbia positiboa da, 27 p.p.

Bestalde, kanpo-eskaerarekin, turismoarekin eta esportazioekin lotutako adierazleek ere erantzunen saldo positiboak (positiboagoak) eutsi diete, bai aurreko hiruhilekoekin eta bai duela urtebetekoekin alderatuta. Aurtengo hirugarren hiruhilekoan izandako hobekuntzak eragina izan du adierazle gehienetan, baina ez zerbitzuen esparruko enpleguan (ikusitako R.1.2 grafikoa). Espektatibetan okerrera egitea hainbat berriren ondorio izan daiteke: AEBek, Txinak edo EBk muga-zergen esparruan har ditzaketan neurriak, *brexita*, ekonomia-politikaren ziurgabetasuna, petrolioaren prezioen igoera, edota automobilgintzaren sektoreko ekoizpeneko lanuzteak.

Laburbilduz, Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkestaren emaitzak bat datoz hazkunde positiboari eusten dion Nafarroako ekonomiarekin, eta nahiko egonkorak dira 2018ko 2. seiuhilekoan, baina ez dago ziurgabetasunetik salbu, azken urteetan aldeko izan dituen zenbait baldintza ahitzen ari baitira pixkana.


17: 2010eko bigarren hiruhilekotik, BBVA Inkesta hiru hilean behin egiten da, BBVAko eskualdeko bulegoen sareko enplegatuen artean. Inkestari buruzko zehaztasun gehiago nahi izanez gero, ikusi : Situación España Recuadro 1, Encuesta BBVA de Actividad Económica. Una herramienta de seguimiento temprano del pulso de la economía. Situación España, 2º trimestre de 2014, hemen; <https://www.bbva.com/public-compuesta/situacion-espana/>

R.1 grafikoa Nafarroa: Jarduera ekonomikoaren bilakaera eta espektatibak. Muturreko erantzunen saldoak (%)



Iturria: BBVA

R.2 grafikoa Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Nafarroan. Erantzunen saldoak (%). Aukeratutako aldagaiak



Iturria: BBVA

R.1 koadroa Jarduera Ekonomikoari buruzko BBVA Inkesta Nafarroan. Emaitza orokorrak (%)

	2018ko 3. hiruhilekoa				2018ko 2. hiruhilekoa				2017ko 3. hiruhilekoa			
	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*	Handitu	Egonkor	Txikitu	Saldoa*
Jarduera Ekonomikoa	38	38	25	13	14	50	36	-21	25	71	4	21
Hurrengo hiruhilekorako aureikuspena	13	56	31	-19	29	71	0	29	29	67	4	25
Industria-ekoizpena	31	63	6	25	14	71	14	0	29	67	4	25
Eskari-zorrotza	31	50	19	13	29	57	14	14	33	67	0	33
Stock maila	13	81	6	6	14	86	0	14	17	83	0	17
Lehen sektoreko inbertsioa	21	71	7	14	36	55	9	27	17	79	4	13
Industriako inbertsioa	36	64	0	36	23	77	0	23	25	71	4	21
Zerbitzuetako inbertsioa	38	56	6	31	21	64	14	7	21	75	4	17
Eraikuntza berriak	69	31	0	69	38	46	15	23	29	63	8	21
Industriako enplegua	29	64	7	21	21	71	7	14	21	79	0	21
Zerbitzuetako enplegua	40	47	13	27	43	50	7	36	25	67	8	17
Eraikuntzako enplegua	50	36	14	36	25	67	8	17	17	79	4	13
Prezioak	19	75	6	13	21	71	7	14	17	83	0	17
Salmentak	19	63	19	0	14	57	29	-14	21	67	13	8
Turismoa	25	69	6	19	14	79	7	7	46	54	0	46
Esportazioak	31	63	6	25	0	93	7	-7	17	75	8	8

* Muturreko erantzunen saldoa.
Iturria: BBVA Research

3. Espainiako biztanleriaren lurralde-dinamika: 1950-2016

Ángel de la Fuente¹⁸ - FEDEA eta Instituto de Análisis Económico (CSIC). 2018ko urria.

Sarrera

Espainiako biztanleriak 1950etik gaur egun arte izandako bilakaera aztertu da artikulu honetan, eta, horretarako, RegData datu-basea erabili da, de la Fuente (2017) lanean deskribatutakoa. Sarrera honen ondoren, 2. atalean, faktore begetatiboek eta migrazio-faktoreek Espainiako biztanleria osoaren bilakaeran eta zahartze-prozesuan izandako eragina aztertu da. 3. atalean, biztanleriaren lurralde-banaketa dinamikaz aztertu da, estatuko eskualde jakin batzuetan kontzentratzeko joera izan baitu. Azkenik, Nafarroaren kasua aztertu da.


Biztanleria agregatuaren bilakaera

1955etik 2016ra bitartean, Espainiako biztanleria 28,2 milioi biztanletik 46,5 milioi biztanlera handitu zen; hau da, % 65eko hazkunde metatua esan nahi du horrek, edo % 0,77ko batez besteko hazkunde-tasa urteko. 1. grafikoan ikus daitekeen moduan, hazkunde hori ez da erritmo uniformean gertatu. 70eko hamarkadaren erdialdera arte, Espainiako biztanleria urteko % 1eko erritmoan hazi zen, migrazio-saldo garbia negatiboa izan arren. 1975 eta 1990 artean, emigrazioa murriztu arren, biztanleriaren hazkundeak behera egin zuen, garai horretan jaiotza-tasak izandako eroriko handiaren ondorioz, funtsean (ikus 1. grafikoaren b panela). Ondoren, biztanleriaren hazkunde handia gertatu zen, mende honetako lehenengo urteetan, bereziki, urte gutxi batzuetan atzerritik milioika etorkin iritsi baitziren; bien bitartean, bertako biztanleriak geldirik jarraitzen zuen. Krisia iritsi zenean, hala ere, joera hori eten egin zen, eta alderantzizko joera ere ikusi da azken urteetan: biztanleriaren hazkunde-tasa zero azpitik egon da 2012tik 2014ra bitartean.


Jaiotza-tasa txikitzearen eta bizi-itxaropena handitzearen ondorioz, zahartze-prozesu batean murgilduta dago Espainiako biztanleria azken hamarkadetan. Prozesu hori modu esanguratsuan azkartu zen 70eko hamarkadan, 2. grafikoan ikus daitekeenez: adineko pertsonen pisuaren bilakaera (gorantz) eta gazteen pisuaren bilakaera (beherantz). Grafikoan ikus daitekeen moduan, adineko pertsonen pisu-handitzea eten egingo da aldi batez mende honetako lehen hamarkadan izandako immigrazio-fluxu handiko urteetan, baina berriro indartuko da krisia iristean.

18: Pep Ruizen aipamen eta iradokizunak eskertzen ditut.

3.1 grafikoa Espainiako biztanleriaren urteko hazkunde-tasa eta osagaiak (Milakotan)




Iturria: Neuk egina, RegData Dem datu-baseko biztanleriaren eta barneko nahiz kanpoko migrazioen datuetan oinarrituta (de la Fuente, 2017)



Iturria: Neuk egina, RegData Dem datu-baseko biztanleriaren eta barneko nahiz kanpoko migrazioen datuetan oinarrituta (de la Fuente, 2017)

3.2 grafikoa Espainiako biztanleriaren banaketaren bilakaera, adinaren arabera. Adin-tarteek guztizkoan duten pisua




Iturria: de la Fuente, A. (2017)

Migrazio-fluxu handiak

Hamarkada hauetan, Espainiak migrazio-joera handiak jasan izan ditu, barnekoak nahiz kanpokoak, eta, ikusi dugunez, funtzio garrantzitsua bete dute biztanleriaren bilakaeran eta, are gehiago, lurraldeko kokapen-ereduan. 3. grafikoa migrazio-intentsitate garbiaren eta horren barneko (eskualdeen artekoa) eta kanpoko osagaien bilakaera jasotzen du. Urtebetean (uztailaren 1etik uztailaren 1era) migrazioaren ondorioz gertatzen diren lekualdaketa garbien kopuru osoa jasotzen du adierazleak, eta herrialdeko urte hasierako biztanleriarekiko zatiki gisa adierazi da. Migrazioaren ondoriozko lekualdaketen kopurua barneko eta kanpoko lekualdaketen batura moduan kalkulatu da. Kanpoko lekualdaketak aldi bakoitzean neurtzen dira, eta Espainiako migrazio-saldoa garbiaren balio absolutua dira. Barneko lekualdaketak honela kalkulatu dira: i) eskualdeetako migrazio-saldo garbien balio absolutuak batuz; ii) kopuru osotik kanpoko lekualdaketak kenduz; iii) emaitza zati bi eginez, barneko lekualdaketa bakoitza bi aldiz zenbatzen dela kontuan izateko (jatorrizko eskualdean eta helmugakoan). Prozedura gutxi gorabeherakoa da, eta barneko migrazioen intentsitatea gutxieteko joera du, fluxu garbiak soilik hartzen baititu kontuan.

Migrazio-intentsitate garbiak beheranzko joera erakusten du aldiaren zati handi batean, baina mende honetako lehenengo urteetan, berriz, gorakada handia gertatu zen, krisiaren hasierarekin amaitu zena. Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, aldagai hori milako 8ren inguruko balioetara iritsiko da urteko; hau da, biztanleriaren mugimendu garbi nahiko handia gertatuko da (300.000 lekualdaketa garbi inguru urtean), eta tasa hori bikoiztu egingo da mende honetako lehenengo bosturtekoan. Aldi osoko kopuruak batuta, lekualdaketa garbien kopuru osoa 13 milioitik gorakoa da; beraz, Espainiako biztanleriaren zati handi batek aztertzen ari garen aldiaren bizitoki zuen eskualdea (edo herrialdea) aldatu zuela esan nahi du horrek. Kopuru horrek, gainera, migrazioaren ondoriozko lekualdaketen kopuru erreala gutxiesten du nabarmenki, biztanleriaren fluxu garbiak soilik atzematen baititu (hau da, etorkinen eta emigratzaileen kopuru osoen arteko aldea), eta beste eskualde batzuetatik, atzeritik edo eskualde horietara edo atzerrira egiten diren lekualdaketak soilik izaten baititu kontuan; beraz, ez ditu kontuan izaten eskualde jakin baten barnean gertatzen direnak.

3.3 grafikoa migrazio-intentsitate garbia (Milako hainbeste urtean)




Iturria: de la Fuente, A. (2017)

Migrazio-intentsitate garbiaren bi osagaiak oso portaera desberdina dute. Barneko osagaiak, eskualdeen arteko migrazio-fluxuen intentsitatea neurtzen duenak, beheranzko joera argia erakusten du, eta, 1980tik aurrera, milako batetik beherako balioetara jaisten da. Kanpoko migrazio-intentsitateak, bestalde, oso azkar egiten du behera aldiaren lehenengo zatian (Espainiak migrazio-saldo negatiboa zuenean), oso balio baxuetan eusten dio aldiaren erdiko urteetan, eta gorantz egiten du 1985etik aurrera, Espainiako migrazio-saldoaren zeinu-aldaketarekin bat etorriz. Azkenik, oso balio altuetara iritsiko da mende honetako lehenengo urteetan, eta bat-batean jaitsiko da krisiaren hasieran.

3. Biztanleriaren lurralde-banaketa


Atal honetan, Espainiako biztanleriaren eskualdeen arabera banaketaren bilakaera aztertu da, joan den mendearan erdialdetik hasita. Aztergaia antolatzen laguntzeko, datuetara egindako lehenengo hurbilketa batean, 17 autonomia-erkidegoak bost makroeskualde handitan bildu ditut, irizpide ekonomiko eta geografikoen konbinazio baten arabera. Tradizio eta pisu industrial handieneko hiru erkidego handiak (Katalunia, EAE eta Madril) eskualde ekonomiko bakarrean biltzen dira (gune industrial handiak), eta gauza bera egin dut bi uharte-eskualdeekin, turismoaren mendeko ekonomiak dituztenekin. Gainerako eskualdeak irizpide geografikoen arabera multzokatu ditut, Hegoaldea (Andaluzia, Extremadura, Gaztela-Mantxa, Murtzia eta Ceuta eta Melilla), Ipar-mendebaldea (Galizia, Asturias, Kantabria eta Gaztela eta Leon) eta Ebroko harana (Errioxa, Aragoi eta Nafarroari Valentziako Erkidegoa erantsita) bereiziz.

3.4 grafikoa pisua Espainiako biztanlerian



Iturria: de la Fuente (2017)

3.5 grafikoa eskualdeen pisuak Espainiako biztanlerian




Iturria: de la Fuente (2017)

4. grafikoa makroeskualde horietako bakoitzak Espainiako biztanlerian izan duen pisuaren bilakaera erakusten du. Eskualdeen profilak askotarikoak dira. 1950etik 1980ra bitartean, erkidego industrial handien pisua % 60 handituko da ia; horren aurrean, hegoaldeko eskualdeak hasierako pisuaren % 20 baino gehiago galduko du. 1980tik aurrera, hala ere, bi eskualde horien pisua egonkorra izango da, gutxi gorabehera. Bestalde, ipar-mendebaldeak pisua galduko du aldi osoan nahiko erritmo uniformearekin, eta uharteetako erkidegoek, berriz, pisua irabaziko dute. Aldi osoa kontuan hartuta, lehenengo eskualdeak hasierako pisuaren % 40 galduko du, eta bigarrenaren pisua, berriz, % 60 baino gehiago handituko da. Azkenik, Ebroko haranak eta Valentziak osatutako makroeskualdeak nahiko iraunkor eutsiko dio azken hirurogeita hamar urteetan ia, baina egonkortasun horrek ondo bereizitako dinamikak ezkutatu ditu eskualdea osatzen duten autonomia-erkidegoetan: Ebroko haranak pisua galduko du Valentziako Erkidegoaren aurrean.


5. grafikoa autonomia-erkidego bakoitzak Espainiako biztanleria osoan duen parte-hartzea erakusten du, 1950. urtetik 2016. urtera. 2016. urtean biztanleria gehien zuten lau eskualdeek (Andaluzia, Katalunia, Madril eta Valentzia) Espainiako biztanleriaren % 46,1 biltzen zuten 1950ean, eta % 58,5, berriz, 2016an. Biztanleriaren kontzentrazio maila, beraz, handitu egingo da nabarmenki, eta oso aldaketa esanguratsuak gertatuko dira baita ere eskualde horietako batzuen parte-hartzean. Madrilgo biztanleria osoaren pisua bikoiztu baino gehiago egin da aldiaren hasieratik amaierara, eta uharteetako eta Kataluniako biztanleriaren pisua % 40 handitu da gutxienez. Beste muturrean, Extremadurak, Galiziak eta bi Gaztelek hasierako pisuaren % 40 baino gehiago galdu dute, eta Aragoik eta Asturiasek, berriz, % 25 baino gehiago. Laburbilduz, Espainiako biztanleria Madrilen eta aldirietan (Mediterraneoaren itsasertzean eta artxipelagoetan, nagusiki) kontzentratu da gero eta gehiago, barneko (bi Gaztelak, Extremadura eta Aragoi) eta ipar-mendebaldeko eskualdeen bizkarretik.

3.6 grafikoa biztanleriaren hazkunde erlatiboaren tasak eta osagaiak, 1951tik 2016ra arteko batezbestekoa, milakotan



Iturria: de la Fuente, A. (2017)

3.7 grafikoa immigrazio-saldo garbi metatua, 1950-2016, 2016ko biztanleria egoiliarren ehunekotan



* Dagokion aldiko etorkinen fluxu garbiak metatuz lortzen dira migrazio-saldo metatuak, heriotza-tasa kontuan hartu gabe.
Iturria: de la Fuente, A. (2017)

Eskualde bateko biztanleriaren hazkunde erlatiboaren tasa (hau da, tasa nazionalarekiko aldea) jaiotzen eta heriotzen arteko aldea islatzen duen osagai natural edo begetatibo baten eta migrazio-fluxuek biztanleriaren hazkunderaren gain duten eragin garbia jasotzen duen beste osagai baten arteko batura moduan adieraz daiteke. 6. grafikoa deskonposatze horren emaitza erakusten du, Espainiako eskualdeen kasuan eta 1951tik 2016ra bitartean. Bi osagaiak zeinu bera izateko joera duten arren (etorkinak ugaltzeko adinean iritsi ohi dira, eta eskualde hartzaileetako jaiotza-tasa handitzen eta heriotza-tasa murrizten du horrek), migrazioarekin lotutako osagaiaren pisua erabakigarria izan da autonomia erkidegoen zati handi baten bilakaera demografikoan. Oro har, migrazio-fluxuak errenta maila handieneko eskualdeetara zuzendu dira, enplegua lortzeko aukera handienak eskaintzen dituztenetara.

Migrazio-fluxuen metaketak eragin handia izan du Espainiako biztanleriak eskualdeetan izandako banaketan. 8. grafikoa 1950etik 2016ra bitartean autonomia-erkidego bakoitzean metatutako migrazio-saldo garbiak erakusten ditu, hainbat hamarkadatan zatituta eta 2016ko biztanleriaren zatiki gisa adierazita. Termino absolutuetan, Kataluniak eta Madrilak hartu dituzte etorkin gehien, bi milioi eta erdi pertsona inguru, bai eta Valentziak ere, milioi eta erdi pertsona inguru. Beste muturrean, Gaztela eta Leonek milioi biztanle inguru galdu ditu emigrazioaren ondorioz; Andaluziak, Extremadurak eta Gaztela-Mantxak ere 650.000 biztanletik 830.000 biztanlera artean galdu dituzte. Termino erlatiboetan, Balear Uharteak, Kanariar Uharteak eta Euskal Autonomia Erkidegoa ere nabarmendu dira biztanleria hartu duten eskualdeen artean, eta Galizia, berriz, biztanleria galdu dutenen artean. Migrazio-saldo garbi metatuak biztanleria egoiliarren oso zatiki esanguratsua osatzen du zenbait eskualdetan. Esate baterako, Balearretako, Madrilgo, Kataluniako eta Valentziako immigrazio-saldo garbiak biztanleria egoiliarren % 30 gainditu zuen 2016an; horren aurrean, bi Gaztelatako eta Extremadurako emigrazio-saldo garbiak gaur egungo biztanleriaren % 30 gainditzen du, eta Extremaduran, zehazki, % 65etik gorakoa da.

1950-1980 eta 1980-2016 aldietako migrazio-saldo metatuak konparatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasua nabarmentzen da. Autonomia-erkidego hori aztertu den aldiaren lehenengo erdian termino erlatiboetan immigrazio-saldo handiena zuen bigarren eskualdea izatek —Extremadurarekin batera— migrazio-saldo garbi negatiboa izan duten Espainiako bi eskualdeetako bat izatera pasatu da 1980tik 2016ra arteko aldiari, hainbat hamarkadatan jasan duen terrorismoaren presioaren eta egoera politiko tirabiratsuen ondorioz, ziurrenik.


Kontrakoa gertatu zen Andaluzian, Gaztela-Mantxan, Murtzian eta Errioxan. Azken erkidego horiek nekazaritza-sektore garrantzitsua dute, eta atzerriko eskulanaren zati handi bat hartu zuten mende honetako lehenengo hamarkadan. Atzerritarren immigrazioa aldi horretan oso garrantzitsua izan da baita ere uhartedietan, Madrilan, Katalunian eta Valentzian.

4. Nafarroaren kasua

Nafarroaren kasuan, 1951. urtean 390 mila biztanle izatetik 2016an 640 mila biztanle izatera igaro da, batez ere mendearen lehen urteetan metatutako 100 mila biztanle inguruko sarrera garbia medio, besteak beste (ikus 8. grafikoa). Eta hori, aztertutako gainontzeko urteetan migrazio saldoa ia hutsa izan ondoren.


9. grafikoak Nafarroako biztanleriaren hazkunde-tasa Espainiako batez bestekoarekin, gehienekoarekin eta gutxienekoarekin konparatzen du. Grafikoan ikus daitekeenez, Foru Erkidegoaren populazioaren hazkunde tasa Espainiako batez bestekoaren ia berdina izan da aztertutako aldi osoan.

3.8 grafikoa Nafarroako Foru Erkidegoaren biztanleria osoaren eta migrazio-saldo metatuaren bilakaera (Milioika pertsona)




Iturria: de la Fuente, A. (2017)

3.9 grafikoa biztanleriaren urteko hazkunde-tasa; Nafarroa gainerako autonomia-erkidegoen aurrean




Iturria: de la Fuente, A. (2017)

3.10 grafikoa Nafarroa gainerako autonomia-erkidegoen aurrean, 0-15 urteko biztanleriak biztanleria osoaren gainean duen pisuari dagokionez



Iturria: de la Fuente, A. (2017)

3.11 grafikoa Nafarroa gainerako autonomia-erkidegoen aurrean, 65 urtetik gorako biztanleriak biztanleria osoaren gainean duen pisuari dagokionez



Iturria: de la Fuente, A. (2017)

10. eta 11. grafikoetan, konparazio bera egiten da baina, orain, gazteek eta zaharrenek populazio osoan duten pisua alderatuz. Espainiako gainerako eskualdeetan bezalaxe, zahartze-prozesu azkarra ikus daiteke Nafarroan, 65 urtetik gorako biztanleen igoera nabarmena gertatu baita aldi osoan, bai eta 0-15 urteko biztanleriaren beherakada ere, 1980tik 2000ra bitartean. Beste behin ere, Nafarroa Espainiako batez bestekotik hurbil kokatzen da bi aldagaion arabera: lehenean apur bat beherantz desbideratuz eta, bigarrengoan, gorantz aldiaren erdiko aldean, amaiera aldera zuzenduz.

Erreferentziak

de la Fuente, A. (2017). "Series largas de algunos agregados económicos y demográficos regionales: Actualización de RegData hasta 2016. (RegData y RegData Dem versión 5.0-2016)." FEDEA, Estudios sobre Economía Española, 2017-26 zk., Madril. <http://www.fedea.net/datos-economia-regional-y-urbana/>

4. Taulak

4.1 koadroa Nafarroako ekonomiaren koituntura adierazle nagusiak

	2017		Batazbesteko hazkundera urte haseratik (u/u)		Azken datua (h/h, ueez)		
	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Nafarroa	Espainia	Azken hilabetea
Txikizkako salmentak	0,9%	0,7%	1,8%	0,8%	0,8%	0,5%	urr-18
Matrikulazioak	10,4%	9,2%	6,4%	8,8%	-4,3%	0,7%	urr-18
ZSJI (IASS)	8,5%	6,4%	4,1%	6,4%	0,4%	0,0%	ira-18
Bidaia-egoiliarak (1)	2,9%	1,9%	2,1%	1,0%	2,9%	0,0%	urr-18
Egoiliarren ostatu-gauak (1)	3,8%	1,4%	1,6%	0,3%	3,4%	1,0%	urr-18
IPI	1,2%	2,9%	1,5%	1,4%	-9,0%	-0,2%	ira-18
Etxebizitza bisatuak	39,0%	71,6%	1,2%	-16,1%	0,9%	0,6%	ira-18
Etxebizitza salerosketak	11,1%	15,4%	13,9%	11,1%	35,9%	-1,1%	abu-18
Esportazio Errealak (2)	-4,2%	7,4%	10,8%	0,2%	-13,1%	-4,6%	ira-18
Inportazioak	-6,1%	5,3%	8,8%	1,4%	-17,2%	-1,9%	ira-18
Bidaia-Atzerritarak (3)	0,9%	6,1%	3,9%	0,8%	5,5%	2,4%	urr-18
Atzerritarren Ostatu-gauak (3)	2,3%	3,6%	4,4%	-0,9%	-33,7%	1,6%	urr-18
Afiliazioa SSn	2,9%	3,6%	3,4%	3,1%	0,2%	0,2%	aza-18
Langabezia Erregistratua	-9,4%	-9,3%	-9,3%	-6,5%	-1,1%	-0,7%	aza-18

(1) Espainiako Egoiliarak; (2) Ondasun esportazioak; (3) Espainiako egoiliarak ez direnak.
Iturria: BBVA Research eta Espainiako ministeritzetan (SOIM, EOM eta ITMM) oinarrituta

4.2 koadroa Barne Produktu Gordina (% urteko batezbestekoa)

	2015	2016	2017	2018	2019
Estatu Batuak	2,9	1,6	2,2	2,8	2,8
EDB	1,9	1,9	2,5	2,0	1,7
Alemania	1,5	2,2	2,5	1,9	1,7
Frantzia	1,0	1,1	2,3	1,6	1,7
Italia	0,8	1,3	1,6	1,1	1,1
Espainia	3,6	3,2	3,0	2,6	2,4
Erresuma Batua	2,3	1,8	1,7	1,4	1,5
Latinoamerika *	-0,1	-1,0	1,2	0,9	1,8
Mexiko	3,3	2,6	2,3	1,9	2,0
Brasil	-3,6	-3,4	1,0	1,2	2,4
Eagles **	4,8	5,2	5,4	5,3	5,1
Turkia	6,1	3,2	7,4	3,0	1,0
Asia-Ozeano Barea	5,7	5,7	5,6	5,7	5,5
Japonia	1,4	1,0	1,7	1,0	1,2
Txina	6,9	6,7	6,9	6,5	6,0
Asia (Txina gabe)	4,6	4,7	4,6	4,9	5,0
Mundua	3,4	3,4	3,7	3,7	3,6

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexico, Peru eta Venezuela.

** Bangladesh, Brasil, Txina, Egipto, Filipinak, India, Indonesia, Iran, Malasia, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Thailandia, Turkia eta Vietnam.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko urriak 11.

Iturria: BBVA Research

4.3 koadroa Inflazioa (%), urteko batezbestekoa)

	2015	2016	2017	2018	2019
AEB	0,1	1,3	2,1	2,5	2,6
Eurogunea	0,0	0,2	1,5	1,7	1,7
Alemania	0,1	0,4	1,7	1,9	1,8
Frantzia	0,1	0,3	1,2	1,9	1,7
Italia	0,1	-0,1	1,3	1,3	1,7
Espainia	-0,5	-0,2	2,0	1,8	1,6
Erresuma Batua	0,0	0,7	2,7	2,5	2,1
Latinoamerika *	8,3	9,8	6,7	7,0	7,8
Mexiko	2,7	2,8	6,0	4,9	4,1
Brasil	9,0	8,8	3,5	3,7	4,8
Eagles **	5,0	4,4	4,1	5,0	5,6
Turkia	7,7	7,8	11,1	17,4	23,4
Asia – Ozeano Barea	2,2	2,3	2,1	2,6	2,9
Japonia	0,8	-0,1	0,5	1,0	1,0
Txina	1,4	2,0	1,7	2,2	2,5
Asia (Txina gabe)	2,8	2,5	2,4	3,0	3,3
Mundua	3,0	3,2	3,3	4,0	4,2

* Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexiko, Peru eta Venezuela.

** Bangladesh, Brasil, Txina, Egipto, Filipinak, India, Indonesia, Irn, Malasia, Mexiko, Nigeria, Pakistan, Errusia, Turkia eta Vietnam.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko urriak 11.

Iturria: BBVA Research

4.4 koadroa 10 urterako zor publikoaren interes tasak (Urteko batezbestekoa)

	2015	2016	2017	2018	2019
AEB	2,13	1,84	2,33	2,89	3,37
Alemania	0,52	0,13	0,37	0,52	1,04

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko urriak 11.

Iturria: BBVA Research

4.5 koadroa Kanbio tasak (Urteko batezbestekoa)

	2015	2016	2017	2018	2019
EUR-USD	0,90	0,90	0,89	0,84	0,83
USD-EUR	1,11	1,11	1,13	1,19	1,21
USD-GBP	1,53	1,35	1,29	1,35	1,41
JPY-USD	121,07	108,82	112,20	110,68	116,25
CNY-USD	6,23	6,64	6,76	6,48	6,46

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko urriak 11.

Iturria: BBVA Research

4.6 koadroa Interes tasa ofizialak (Epealdi amaiera, %)

	2015	2016	2017	2018	2019
AEB	0,50	0,75	1,50	2,50	3,25
Eurogunea	0,05	0,00	0,00	0,00	0,25
Txina	4,35	4,35	4,35	4,35	4,35

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko urriak 11.

Iturria: BBVA Research

4.7 koadroa Espainia: Aurreikuspen makroekonomikoak (Urteko aldakuntza tasak %tan, besterik adierazi ezean)

	2015	2016	2017	2018	2019
Jarduera					
BPG erreala	3,6	3,2	3,0	2,6	2,4
Kontsumo pribatua	3,0	2,8	2,5	2,4	1,8
Kontsumo publikoa	2,0	1,0	1,9	2,3	2,3
Kapitalaren Erakuntza Gordina	6,7	2,9	4,8	6,0	5,0
Ekipamentua eta Makineria	11,9	5,2	6,0	7,4	5,0
Eraikuntza	3,6	1,1	4,6	6,1	5,0
Etxebizitza	-0,9	7,0	9,0	6,8	6,0
Barne eskaria (hazkunderari ekarpena)	3,9	2,4	2,9	3,1	2,5
Esportazioak	4,2	5,2	5,2	2,8	5,7
Inportazioak	5,4	2,9	5,6	4,7	6,2
Kanpo eskaria (hazkunderari ekarpena)	-0,3	0,8	0,1	-0,5	0,0
BPG nominala	4,2	3,5	4,2	3,7	4,4
(milaka milioi euro)	1081,2	1118,7	1166,3	1209,2	1262,7
Lan merkatua					
Enplegua, BAI (EPA)	3,0	2,7	2,6	2,6	2,2
Langabezia tasa (populazio aktiboaren %)	22,1	19,6	17,2	15,3	13,7
Enplegua CNTR (lanaldi osoko baliokidea)	3,3	3,0	2,9	2,4	2,1
Lan faktorearen ageriko produktibitatea	0,3	0,1	0,1	0,1	0,3
Prezio eta kostuak					
KPI (urteko batezbestekoa)	-0,5	-0,2	2,0	1,8	1,6
KPI (epealdi amaiera)	0,0	1,0	1,1	2,0	1,5
BPGren deflaktorea	0,6	0,3	1,2	1,1	1,9
Soldatapekoen ordainketa	0,9	-0,5	0,3	0,9	2,1
Unitateko lan kostua	0,5	-0,6	0,2	0,8	1,8
Kanpo sektorea					
Kontu korrante balantza (BPGren %)	1,1	1,9	1,9	1,4	1,3
Sektore publikoa (*)					
Zorra (BPGren %)	99,4	99,0	98,3	96,7	94,2
AA.PP.en saldoa (BPGren %)	-5,2	-4,3	-3,1	-2,8	-2,1
Etxeak					
Errenta eskuragarri nominala	2,3	1,8	1,6	3,5	4,4
Aurrezki tasa (eremta nominalaren %)	8,9	8,0	5,7	5,3	6,2

Urteko aldakuntza tasa %etan, besterik adierazi ezean.

Aurreikuspenen itxiera-data: 2018ko urriak 11.(*) Espainiako finantza erakundeei eman laguntzak kenduta.

Iturria: BBVA Research

5. Glosarioa

Siglas

- AAEE: Autonomia Erkidegoak
- BAI: Biztanleria Aktiboaren Inkesta
- BBVA – GAIN: BBVAren jarduera globalaren indizea
- BBVA: Banco Bilbao Vizcaya Argentaria
- BPG: Barne Produktu Gordina
- CEOE: Enpresaburuen Elkarteen Espainiako Konfederazioa
- CEPYME: Enpresa Txiki eta Ertainen Espainiako Konfederazioa
- CNTR: hiru hileroko kontabilitate nazionala
- CRE: Espainiako Eskualde Kontabilitatea
- EAE – BBVA:Jarduera Ekonomikoari buruz BBVA inkesta
- EAGLEs: garatzeko bidean dauden eta hazkunderako liderrak diren ekonomiak (Emerging and Growth-Leading Economies)
- EB: Europar Batasuna
- EBZ: Europako Banku Zentrala
- EDB: Ekonomia eta Diru Batasuna
- ENKA: enplegu eta negoziazio kolektiborako akordioa
- ETE: enpresa txiki eta ertainak
- Euribor: euroaren eremuko diru-merkatuko banku arteko erreferentzia-tasa (Euro interbank Offered Rate)
- FED: Erreserba Federala (Federal Reserve System)
- GAKN: Gastua Azken Kontsumo Nazionalean
- GK: Gobernu Kontseilua
- HEH: Hiri Eremu Handia
- HHAA: Herri Administrazioak
- INE: Estatistikako Institutu Nazionala
- KPI: Kontsumo Prezioen Indizea
- I.o.e.: lanaldi osoari dagokion enplegua
- LATAM: Latinoamerikari dagokion agregatua; honen barnean sartzen dira Argentina, Brasil, Txile, Kolonbia, Mexiko, Peru eta Venezuela
- MEYSS: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa
- MICA-BBVA: momentuko jarduera-adierazleen BBVA eredia
- MINHAFP: Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioa
- SEB: beste sektore egoiliar batzuk
- UEEZ: urtarokotasun eta egutegi-eraginak zuzenduta
- UTB: Urteko Tasa Baliokidea

Abreviaturas

- h/h: hiruhileko arteko aldaketa
- KT: konfiantza tartea
- mM: mila milioi
- mp: merktu preziotan
- op: oinarrizko puntuak
- p.p.: puntu portzentalak
- u/u: urtetik urterako aldaketa

LEGE-OHARRA

BBVA Research-eko sailak egindako dokumentu honek dibulgazio-izaera du, eta egindako datari dagozkion datuak, iritziak eta estimazioak ditu, bertan landutakoak edo fidagarri irizten diegun iturrietatik datozenak edota berorietan oinarrituta egin direnak; hala ere, BBVAk ez ditu bere kabuz egiaztatu beroriek. Hortaz, berorien zehaztasunari, osotasunari edo zuzentasunari buruzko bermerik ez du ematen BBVAk, ez berariaz eta ez modu inplizituan.

Dokumentu honetan izan daitezkeen estimazioak oro har onartuta dauden metodologiak erabiliz landu dira, eta halakotzat hartu behar dira, hau da, aurreikuspen edo proiektiotzat. Aldagai ekonomikoen bilakaera historikoak (positiboa edo negatiboa) ez du bermatzen etorkizunean bilakaera baliokidea izango dutenik.

Dokumentu honen edukiak aldaketak izan ditzake, aurretiazko abisurik gabe, adibidez, testuinguru ekonomikoaren arabera edota merkatuaren gorabeheren arabera. BBVAk ez du inolako konpromisorik hartzen ez dokumentua eguneratzeko eta ez aldaketa horien berri emateko ere.

BBVAk ez du beregain inolako erantzukizunik dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzearen ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen inolako galeraren aurrean.

Ez dokumentu hau eta ez jasotzen duen edukia ere ez dira inolaz ere eskaintza, gomendio edo erosketa-eskaera, aktibo edo tresna finantzarioak erosteko, inbertsioak desegiteko edo interesak lortzeko, eta ezin dute izan inolako kontratu, konpromiso edo erabakiren oinarri.

Dokumentu honek gara ditzakeen aldagai ekonomikoekin lotuta egon daitezkeen aktibo finantzarioetan egin daitezkeen inbertsioei dagokienez, irakurleek argi eta garbi izan behar dute ezin dutela dokumentu hau beren inbertsioei buruzko erabakiak hartzeko oinarritzat hartu, eta inbertsio-produktuen eskaintzak egin diezazkieketen pertsonak edo erakundeak legez behartuta daude horrelako erabaki bat hartzeko beharrezkoa duten informazio guztia ematera.

Honako dokumentu honen edukia jabetza intelektualari buruzko legediak babesten du. Berariaz debekatuta dago berau erreproduzitzea, aldatzea, banatzea, publikoki zabaltzea, eskuragarri jartzea, zatiak ateratzea, berriro erabiltzea edo bidaltzea edo beste edozein helburutarako erabiltzea, edozein bitarteko edo prozedura medio, legez baimendutako kasuetan salbu eta BBVAk berariaz emandako baimena dutenean salbu.

Txosten hau Espainia eta Portugalgo Unitateak prestatu du

Espainia eta Portugalgo Ekonomialari Burua

Miguel Cardoso

miguel.cardoso@bbva.com

Joseba Barandiaran

joseba.barandia@bbva.com

+34 94 487 67 39

Giancarlo Carta

giancarlo.cart@bbva.com

+34 673 69 41 73

Luis Díez

luismiguel.diez@bbva.com

+34 697 70 38 67

Leopoldo Duque

leopoldo.duque@bbva.com

Víctor Echevarría

victor.echevarria@bbva.com

Juan Ramón García

juanramon.gl@bbva.com

+34 91 374 33 39

Félix Lores

felix.lores@bbva.com

Dmitry Petrov

dmitry.petrov.becas@bbva.com

+34915375482

Virginia Pou

virginia.pou@bbva.com

+34 91 537 77 23

Jonathan Poveda

jonathan.poveda.becas@bbva.com

+34915375482

Salvador Ramallo

salvador.ramallo@bbva.com

+34 91 537 54 77

Pep Ruiz

ruiz.aguirre@bbva.com

+34 91 537 55 67

Angie Suárez

angie.suarez@bbva.com

+34 91 374 86 03

Camilo Andrés Ulloa

camiloandres.ulloa@bbva.com

+34 91 537 84 73

BBVA Research

Grupo BBVAko Ekonomialari Burua Jorge Sicilia Serrano

Analisi Makroekonomikoa

Rafael Doménech

r.domenech@bbva.com

Ekonomia Digitala

Alejandro Neut

robertoalejandro.neut@bbva.com

Ekonomia Agertoki Globalak

Miguel Jiménez

mjimenezg@bbva.com

Finantza Merkatu Globalak

Sonsoles Castillo

s.castillo@bbva.com

Modelizazioa eta Epe Luzeko

Analisi Globala

Julián Cubero

juan.cubero@bbva.com

Berrikuntza eta Prozesuak

Oscar de las Peñas

oscar.delaspenas@bbva.com

Finantza Sistema eta

Erregulazioa

Santiago Fernández de Lis

sfernandezdelis@bbva.com

Erregulazio Digitala eta

Joerak

Álvaro Martín

alvaro.martin@bbva.com

Erregulazioa

Ana Rubio

arubiog@bbva.com

Finantza Sistemak

Olga Cerqueira

olga.gouveia@bbva.com

Espainia eta Portugal

Miguel Cardoso

miguel.cardoso@bbva.com

Estatu Batuak

Nathaniel Karp

nathaniel.Karp@bbva.com

Mexiko

Carlos Serrano

carlos.serranoh@bbva.com

Turkia, Txina eta Big Data

Álvaro Ortiz

alvaro.ortiz@bbva.com

Turkia

Álvaro Ortiz

alvaro.ortiz@bbva.com

Asia

Le Xia

le.xia@bbva.com

Hego Amerika

Juan Manuel Ruiz

juan.ruiz@bbva.com

Argentina

Gloria Sorensen

gsorensen@bbva.com

Kolonbia

Juana Téllez

juana.tellez@bbva.com

Peru

Francisco Grippa

fgrippa@bbva.com

Venezuela

Julio Pineda

juliocesar.pineda@bbva.com

INTERESDUNAK ZUZENDU HONA:

BBVA Research: Calle Azul, 4. Edificio de la Vela - 4ª y 5ª plantas. 28050 Madrid (España).

Tel.: +34 91 374 60 00 eta +34 91 537 70 00 / Fax: +34 91 374 30 25

bbvaresearch@bbva.com www.bbvaresearch.com

